



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GRAL:

Denentzako eta inklusioa lantzen den ikastetxe baten bila, ikaskuntza zerbitzua erabiliz.

Egilea: Laka Plaza, Beñat

Zuzendaria: López Vélez, Ana Luisa

2019/2020

AURKIBIDEA

Laburpena.....	3
Resumen.....	3
Sarrera.....	4
1-Marko teorikoa.....	5
1.1 Hezkuntza inklusiboa.....	5
1.1.2 Ikasgela inklusiboak.....	6
1.1.3 Inklusioa eta ebaluazioa.....	9
1.2 Ikaskuntza zerbitzua.....	12
1.2.1 Ikaskuntza zerbitzuaren osagaiak.....	13
1.2.2 Ikaskuntza zerbitzu bat garatzeko baldintzak.....	14
1.2.3 Ikaskuntza zerbitzuaren egitura.....	16
1.2.4 Ikaskuntza zerbitzua lantzeraren onurak.....	18
2-Testuingurua.....	20
3-Ikaskuntza zerbitzuaren prozesua.....	21
4-Lortutako emaitzak.....	24
4.1 Ikasleen inkesten emaitzak.....	24
4.2 Gurasoen inkesten emaitzak.....	30
4.3 Irakasleen emaitzak.....	35
5-Hausnarketa.....	41
5.1 Emaitzetan ikusitako interpretazioak.....	41
5.2 Egindako ikaskuntza zerbitzuaren gaineko analisisa.....	42
6-Ondorio nagusiak.....	44
7-Bibliografia.....	45
8-Eranskinak.....	47
8.1 Galdetegiak.....	47
8.1.1 Irakasleen galdetegiak.....	47
8.1.2 Gurasoen galdetegiak.....	49
8.1.3 Ikasleen galdetegiak.....	52
8.2 Galdetegien erantzunak.....	54
8.2.1 Ikasleen erantzunak.....	54
8.2.2 Gurasoen erantzunak.....	56
8.2.3 Irakasleen erantzunak.....	59

LABURPENA

Lan honen helburu nagusia, Lekeition kokatuta dagoen ikastetxe batean inklusioa hobetzeko asmoz egin den ikaskuntza zerbitzuaren berri ematea izango da.

Horretarako, lehenik eta behin marko teoriko moduan hezkuntza inklusiboa zer den, ikasgela inklusiboek nolako ezaugarriak dituzten eta inklusioa lantzeko ebaluazio metodologiak nolakoak izan behar diren azalduko da.

Bestalde, ikaskuntza zerbitzua zer den, hau martxan jartzeko baldintzak zeintzuk diren eta hau lantzeak gure ikastetxeari ekar dakizkion onurak zeintzuk diren azalduko dira, betiere, autore eta aditu ezberdinen artikuluetako ideietan oinarri hartuz. Ondoren, ikaskuntza zerbitzua landu den ikastetxearen testuingurua eta ezaugarriak ezagutuko ditugu. Azkenik, ikastetxean egin den ikaskuntza zerbitzuaren berri emango da. Hain zuzen ere, irakasleek, familiek eta ikasleek erantzun dituzten inkesten erantzunen eta hemendik atera diren ondorioen berri.

Esku hartze honen bidez, Lekeitioko ikastetxe batean dagoen inklusio ikuspegiari bultzada eman nahi izan zaio. Horretarako, aurrera eramán den ikaskuntza zerbitzuaren laguntzaz, ikuspegi hori praktikan jartzeko orduan ikastetxeak dituen ahuleziak zeintzuk diren ezagutu, hausnartu eta hobekuntzak bilatzeko asmoz egin dira..

RESUMEN

El objetivo de este trabajo es dar a conocer el aprendizaje y servicio propuesto y puesto en marcha en un centro de Lekeitio, para fomentar y fortalecer la inclusión escolar.

Para empezar, en la primera parte del trabajo se definirá, como marco teórico, qué es la educación inclusiva, cómo son las aulas inclusivas y las características que deben tener. Además, se describe la metodología de evaluación que se debe poner en marcha para que en un aula haya un ambiente de inclusión.

Por otro lado, en base a distintos artículos y diferentes ideas de algunos autores y autoras, se informa sobre qué es el aprendizaje-servicio, sus características, y los beneficios que trae trabajar de esta forma en los centros educativos. Después, se da a conocer el entorno del centro donde se ha puesto en marcha el proceso. A continuación, se describe el aprendizaje servicio que se ha hecho en el centro de

Lekeitio. Finalmente, se dan a conocer los resultados de las encuestas contestadas por las familias, profesorado y alumnado del centro y las conclusiones que se sacaron.

Este trabajo ha tenido la finalidad de dar un impulso y poner en la práctica la apuesta que hace el centro de Lekeitio ante la filosofía de la inclusión. A través del aprendizaje servicio hemos podido analizar los lados positivos y las debilidades que tiene el centro ,y así, sacar conclusiones para hacer mejoras a la hora de trabajar la inclusión.

SARRERA

Hezkuntza inklusiboaren gaia hautatzeko arrazoia anitzak izan dira nire erabakia hartzerako orduan. Azken urtetan Euskal Herriko eskoletan izandako eboluzio eta hobekuntzak nabariak izan dira inklusio arloan. Egunkari, irrati eta beste komunikabideetan sarritan entzun ditut gai honen gaineko iritzi, metodologia berri eta ekintza ezberdinak, baina betiere gaiaren gaineko ideia hutsak irakurrita eta inoiz ez barnetik ezagututa. Bestalde, kalean eta beste leku publiko batzuetan sarritan entzun izan dut behar bereziak dituzten ikasleen gurasoen ahotik, beraien seme alabei eskola ugarik ez dietela inolako erraztasun eta laguntzarik eskaintzen hauen hezkuntza prozesua egokia izan dadin. Hori dela eta, komunikabideen eta gurasoen iritzi ezberdinak albo batera utzita, artikulua ezberdin eta nire herriko eskolaren metodologia eta estrategia ezberdinak ezagutzeari ekin nion.

Prozesu hau garatzeko ikaskuntza zerbitzua deritzon proiektua erabili dut, estrategia hau berria izan da niretzat, baina aldi berean oso interesgarria eta erabilgarria. Artikulu ezberdinak, gaiaren gaineko idazle eta adituen aholkuak irakurri eta estrategia ezberdinen gaineko bideoak ikusi ondoren asko ikasi dudala esango nuke. Proiektu hauek sarritan bigarren plano batean geratzen dira, eta ez gara konturatzen zenbaterainoko garrantzia izan dezaketen gure irakasle bilakaeraren prozesuan. Ikaskuntza zerbitzuarekin izan dudana esperientzia oso positiboa izan dela aipatu nahi dut, bai GRAL-a lantzerako orduan, eta etorkizunari begira irakasle gisa lan egiteko hainbat gauza berri ikasi ditudalako.

Lan honetan, inklusioak azken urteotan izan duen bilakaera azalduko dut hainbat adituk ematen dituen informazioa oinarri hartuta. Argi ikusten da eskola ugarik indar handia hartu dutela beraien gelatan inklusioa lantzerako orduan, baina ikus daitekeenez ere, oraindik lan handia dago egiteko mundu guztiko eskola eta txoko guztietan.

Honekin bat, ikaskuntza zerbitzua lantzerako orduan nire herriko Lekeitioko Eskola Publikoarekin kontaktuan egon naiz eta beraien laguntza ezinbestekoa izan da. Ikaskuntza zerbitzuaren bidez Lekeitioko Eskolan inklusioa modu egoki batean lantzen den ala ez ikusi dut. Booth eta Aincow-en (2015) "Index for inclusion" ebaluazioa prozesua erabili dut. Hemen ezinbestekoa izan da gurasoen, zuzendaritzaren eta eskola osatzen duten ikasleen laguntza. Estrategia hau inkesta ezberdinak sortzean oinarritu dugu, ondoren galdera eta adierazle batzuen bidez irakasle, ikasle eta gurasoek inklusioaren gainean erantzun batzuk emango dituztena. Erantzun guztiak batu ostean, emaitzak atera eta, ikastetxearen ahulezia eta sendotasunak zeintzuk diren ezagutzera heltzeraino. Helburu nagusia eskolak inklusioaren gainean dituen alderdi ezberdinak ezagutzea da, hala nola, ikastetxearen indarguneak eta ahuleziak zeintzuk diren erreparatu eta ahulezia horiek hobetzeko metodologia eta strategi berriak bilatzea. Honela, aurretik aipatu bezala inklusioari indarra ematea eta ikasle guztiak eskolan pozik eta gustura sentitzea helburua delarik.

1-MARKO TEORIKOA

1.1 HEZKUNTZA INKLUSIBOA

Azken urteotan hezkuntzaren munduan aldaketak izan dira. Metodologia eta estrategia berriak lehengo hezkuntza eredu tradizionala gero eta atzerago uzten hasi dira eta orain denontzako hezkuntza eta inklusioa bezalako baloreei garrantzi handiagoa ematen zaie. Hori dela eta ezinbestekoa da autonomia, errespetua, kooperazioa eta dibertsitatea bezalako baloreak lantzen dituen hezkuntza eredu bat eraikitzea (Bolívar eta Escudero, 2008).

Hezkuntza inklusiboa hainbat perspektiba ezberdinetatik ikusi eta interpretatu daiteke, baina beti du helburu eta izaera berdina, denontzako hezkuntza bat sortzea. Booth eta Aincow (2015) adituek diotenez, ikasle guztien ezaugarri eta beharrei erantzuteko baliabide berrien bilaketa prozesuari deritzo. Hezkuntza inklusiboa honako ezaugarri hauetan oinarritzen da: ikasle guztiak ikastetxeko partaide eta ikaskuntza prozesuan eroso sentitzea, eskolako kideen arteko errespetua lantzea, dibertsitatearen bidez gauza berriak egiten ikastea eta ekitateari garrantzia ematen dion hezkuntza izatea (López-Vélez, 2018).

Ikastetxe batean inklusioa lantzeko ezinbestekoa da irakasleak inklusioaren aldeko apustua eta jarrera positiboa izatea. Izan ere, ikastetxe askotan inklusioaren inguruko filosofia aintzat hartzen da, baina irakasleek teoria praktikan jartzerako orduan inklusioarekiko izaten duten jarrera eta partaidetza ez da osotasunezkoa izaten, eta

hori izaten da sarritan ikastetxeak aurkitzen duen oztopo handienetako bat. Alderdi hau lantzea ezinbestekoa da, honen arabera izaten baita ikasleek jasotzen duten ikaskuntza prozesuaren kalitatea (García, 2008).

Honek egiten duen ibilbideak helburu nagusi bat dauka, hain zuzen ere, ikasleek kalitatezko hezkuntza bat jasotzea. Helburu hau lortzeko, bidean aurrera egiteko ezinbestekoak eta oinarrizkoak diren bi ezaugarri landu behar dira, hala nola, bikaintasuna eta ekitatea. Hezkuntza bikaina lortzeaz hitz egiten dugunean, ume eta ikasle bakoitzaren jakituria maila gorena lortzeko lan egiteari erreferentzia egiten zaio, honela, bizi diren gizartean hiritar bezala parte hartu eta oinarrizkoak diren eskubideak lor ditzaten (López-Vélez, 2018).

Hezkuntza inklusiboaren beste helburuetako bat ikastetxea osatzen duten ikasle eta irakasleak ikaskuntza prozesu eta dibertsitatearen aurrean gustura sentitzea da. Gainera, dibertsitatea oztopo bat bezala ikustetik, ikasleek dibertsitatea gauza berriak ikasteko baliabide berri gisa erabiltzera pasatuko da (UNESCO, 2005).

Aipatu behar da, ordea, hezkuntza inklusiboak bide luzea duela egiteko diotela hainbat adituk. Blanco adituak adierazten duen moduan ez dago ikastetxe baterako “ikasle ez egokirik” alderantziz baizik, “ikastetxe ez egoki” ugari daudela dio, izan ere ikastetxe hauek ez dituzte beharrezkoak diren baliabideak ikasle guztien ezaugarri eta beharrak asetzeko. Hori dela eta, ikasleak ez dute beraien izaera aldatu behar eskolen partaide izateko, ikastetxeek aldatu behar dute beraien izaera ikasle guztienganako egokitzapen bat izan eta hauen beharrei erantzuteko.(Blanco,2000 in López-Vélez 2018).

1.1.2 IKASGELA INKLUSIBOAK

Eskola bateko inklusioak indarra izateko ikasgela barruko inklusioa lantzea ezinbestekoa da, izan ere, ikasleak jaso eta ordu gehien pasatzen dituzten eskolako esparruetako bat da eta. Esparru hauek, dibertsitateari ongi etorria ematen dioten komunitate txiki bezalakoa ikus daitezke, betiere ezberdintasunak albo batera uzten dituelarik.

Ikasgela hauek modu egoki batean lantzeko eta aspektu inklusibo bat izateko, ezinbestekoa da irakaslearen konpromezua egotea. Hori dela eta, irakasleak gai izan behar du ikasgela osatzen duten ikasle guztienganako begirunea eta berdintasunezko tratu bat sortzeko, izan ere, ezaugarri bi hauek ikasle guztiekin betetzen ez bada, inoiz ez da lortuko ikasgelan inklusioa osotasunean lantzea. Funtsezkoa da irakasleek beraien ikasleenganako itxaropen altuak izatea, honela, ikasleak beraien ikaskuntza

maila altuenera eta arrakastara iritsiko dira (Duk, 2003). Hori dela eta, ezinbestekoa da gaur egungo irakasleek formakuntza ezberdinetan parte hartzea eta gaiaren gaineko estrategia eta metodologia ezberdinak ikastea (Stainback y Stainback, 1999).

Gela hauetan garrantzi handia ematen zaio ekitatea eta elkarbizitza bezalako baloreak egunerokotasunean lantzeari, izan ere inklusioaren ezaugarri nagusietakoa da. Gainera, kultura, politika eta praktika inklusiboak ikastetxean eta ikasgelan lantzerako orduan bost balore nagusi izaten direla kontuan aipatzen ditu López-Vélez (2018) adituak: berdintasuna, parte hartzea, dibertsitatearekiko errespetua, komunitatea eta jasangarritasuna (Booth eta Aincow, 2015 in López-Vélez, 2018):

- Berdintasunaz hitz egitean ez du esan nahi ikasle guztiak berdinak izan behar direnik, baizik eta ikasle bakoitza den modukoa izanda eta bakoitzak dituen ezaugarriak izanda, ikasle guztiak berdintasun batean tratatu behar direla.
- Ikasgela barruan egiten diren jarduera eta ekintza ezberdinek ikasgelako kideen parte hartzea sustatu behar du, eta parte hartze hori ikaskuntza prozesuaren helburu nagusietako bat izan behar da.
- Dibertsitateari dagokionez, beste ikasleak modu eta jarrera justu batez tratatzea, bakoitzaren izaera den modukoa baloratzea eta kide bakoitzak komunitateari ematen diona aitortzea.
- Komunitatea osatzen duten gizarteko beste kideekin batera bizi garela aitortzea eta beharrezkoak direla besteekin adiskidetasun eta afektuzko harremanak sortzea gure ongizaterako.
- Ikasleak modu egoki batean heztea ezinbestekoa da, iraunkortasuna sustatuz bizitzako aspektu ezberdinetan jarrera egoki batez jarduteko, hala nola, naturarenganako maitasuna eta errespetua.

Aurrekoarekin bat, beste ezaugarri batzuk ere lantzea ezinbestekoak dira ikasle guztiak ongi etorriak izan daitezen ikasgela inklusibo batean (Muntaner , 2014):

- ✓ Ikasleek ikaskuntza prozesuaren eta ikasgelako protagonistak izan behar dute eta aske sentitu behar dute beraien zalantzak galdetzeko eta proposamen ezberdinak besteen aurrean azaltzeko.
- ✓ Irakasleak ikaslearen ikaskuntza prozesuan gidari rola izango du eta ikasleari ikaskuntza prozesua bideratuko dio.

- ✓ Kooperazioan eta laguntzan oinarritzen den ikasgela bat izan behar da, elkarren laguntzaz denon helburu komunak lortzeko asmoz lan egiten duena. Estrategia hauekin, beste kideekin bat eginez kooperazioaren bidez ikaskuntza prozesuan elkar laguntzeko gai direla erakutsi behar zaie ikasleei.

Gelaren antolaketari dagokionez, oinarri gisa izan behar duen baloreetako bat dibertsitatea izango da, eta hori horrela izateko irakasleak esku hartu beharko du gelaren antolaketa egiterako orduan. Ikasleek gela barruan aukera ezberdinak probatzeko posibilitatea izan behar dute, non espazio eta txoko ezberdinak izango dituzten, maila ezberdineko ekintzak burutzeko aukera egongo den eta ikaskuntzarako estrategia ezberdinak saiatzeko aukerak izango dituzten (Echeita et al, 2016 in López-Vélez 2018).

Ikasgelako espazio fisikoan, gela hori osatzen duten ikasle guztiei erreferentzia egiten dien apainketak agertu beharko lirateke, argazki, mural edota beste estrategia batzuk erabiliz, hala nola, talde kultural ezberdinak, gizonezkoak eta emakumezkoak, erlijio ezberdinak, gaitasun fisiko ezberdinak dituzten pertsonak etab irudikatuz (Aguado, 1996).

Pujòlas-ek (2012) hiru estrategia ezberdin garrantzitsutzat jotzen ditu gelaren baten antolaketa egokia izan dadin eta inklusioa modu eraginkorrean landu eta dibertsitateari erantzuteko: ikaskuntza prozesuaren moldagarritasuna, ikasle bakoitzaren autonomia lantzea eta kooperazioaren lanketa.

-Ikaskuntza prozesuaren moldagarritasunari dagokionez, lantzen diren materia eta kontzeptuen moldaketari deritzo, hau da, estrategia ezberdinak bilatzean datza, betiere ikaslearen ezaugarriak kontutan izanda eta ikasleari ikasteko erraztasunak bilatuz. Ikasleak ez dira berdinak eta ezin diegu denei modu berdinean irakatsi, estrategia eta metodologia ezberdinak bilatu behar ditu irakasleak ezagutza eta ekintza ezberdinak lantzerako orduan.

-Ikasle bakoitzaren **autonomia** lantzea ezinbesteko da. Ikasle bakoitzak arazo ezberdinen aurrean erabakiak hartu eta arazoa konpontzeko estrategia ezberdinak bilatzen ikasi behar du. Irakaslearen rola ez da izango arazoari konponbidea ematea, bideratzaile rola izango da, hau da, ikasleari konponbidea bilatzen lagundu eta bideratuko du, ikasleak berak erantzuna aurkitu arte.

-Ikaskuntza **kooperatiboari** ere garrantzia ematen dio Pujòlasek (2012). Ikasgelaren antolakuntzari dagokionez talde kooperatiboaren bidez ekintzak egiteari dagokio, honela ez da beti irakaslea izango ikasleei irakasten diena, talde kooperatiboaren bidez ikasleek

elkarri irakasteko aukerak eskainiko dizkiote. Bestalde, Antolin, Martín eta Barba (2012) esaten dutenez, ikaskuntza kooperatiboak ikasleei sozialki hobekuntzak ekartzen dizkie, hala nola, komunikaziorako eta elkarriketarako hobekuntzak, beste kideekiko errespetua txandak errespetatzerakoan, talde baten barruan dauden rol ezberdinak etab. Honela, kooperazioaren bidez landu diren kontzeptu berriak barneratzeaz gain, ikasleek beraien ikaskideekin izandako elkarrekintzaren ondorioz errespetua, talde lana, laguntza eskaintzea eta beste balore batzuk ikasten dituzte.

Atal hau borobiltzeko, inklusioa lantzen den gela batean ezinbestekoa da ikasle guztiak dibertsitatearen aurrean gustura sentitzea eta beraien ikaskuntza prozesua egokiro aurrera eramatea. Horretarako aurretik aipatutako estrategia ezberdinak erabiliko ditu irakasleak, betiere gelaren eta estrategien gidaria bera izanda eta momentuko ekintza eta jarduera guztiak ikasleen ezaugarrietara eta beharretara moldatuta (Rubio,2007).

1.1.3 INKLUSIOA ETA EBALUAZIOA

Aurreko atalean aipatu dugun moduan, gelako giroa ona izan eta metodologia era eraginkorrean aurrera eramateak garrantzia du, baina gelako ebaluazioa modu egokian bideratzeak ere pisu handia du kalitatezko inklusioa lantzerako orduan.

Gaur egun, ebaluazioa da hezkuntzaren bidea markatzen duen ikaskuntza prozesua. Zertarako ikasten dute ikasleek? Egin diegu galdera hori beraien? Galdera horien aurrean ikasleen gehiengoak ematen duen erantzuna hau da: Gainditua lortzeko ikasten dugu. Ikasleek ez dute beraien gustuen edo interesen arabera ikasten, baizik eta ebaluazioko nota positibo hori lortzeko, eta sarritan ez da ikasleen helburua soilik, familia eta irakasleen helburutzat ere gainditzea da. Azterketan gainditzen bada, helburua lortuta egongo da. Gainera, hurrengo kurtsora pasatzean ekaitza pasatuko bazen moduan dena ahaztuta iristen dira oportetako bi hilabeteetatik bueltan, aurreko kurtsotan egindako dena albo batera utzita (Casanova, 2011)

Ebaluazio prozesua aldatzea ezinbestekoa da ikasleen ikaskuntza prozesua beraien bizitzarako onuragarria izateko, eta horretarako aldaketa gizartetik etorri behar da. Irakasleek esaten dutenez “memorizatze prozesu” eta azterketen bidez egindako ebaluazioak familiek eta gurasoek eskatzen duten eredia dela (honela irakasleek frogak dituzte azterketen bidez ikasleek ikasi badute ala ez) honela kalifikazio baten bidez baloratzen dute beraien seme alaben ikaskuntza prozesua ona den ala ez (Casanova,2011).

Beheko irudian ikus daitekeen moduan, ebaluazioan kontutan izango diren adierazleak gelan inklusioa lantzeko giltza izan daiteke, eta hau egokiro ez bada bideratzen

alderantziko kasua gerta daiteke, gelako ikasle askok bazterketa pairatuz (Ministerio de Educación y Ciencia, 2006 in López-Vélez, 2018).

1.Irudia:Ebaluazioaren esanahia



Oharra: Ministerio de Educación y Ciencia, 2006 in López-Vélez,2018, p.137.

Aurrekoarekin bat, inklusioa oinarritzat hartzen duen ebaluazio metodo ezberdinak aipatu aurretik, ezinbestekoa da estrategia honen printzipioek zeintzuk izan behar duten jakitea. Izan ere, ebaluazio inklusiboa izateko ezinbestekoa da ekitatea lantzea, eta ikasleen ezaugarriak kontutan izatea. Coll, Palacios eta Marchesi-k (2001) esaten dutenez, ebaluazio praktikek funtzio pedagogikoari lehentasuna eman behar diote, eta honen eskutik planifikazioaren gaineko erabakiak. Horretarako, ezinbestekoa da ondorengo baldintza hauek kontutan izatea (López-Vélez, 2018).

- Lehentasuna eman behar zaio ebaluazioan lantzen den funtzio pedagogikoari. Ebaluazioan ezarri diren adierazleek moldagarriak izan behar dira, ikasleen errendimenduaren arabera adierazleek aldatu ahal izango dira prozesuan zehar, betiere ikasleentzako onuragarriak direlarik.

- Ebaluazioak ikaslearen formakuntza rola hartu behar du. Ikaslearen ikaskuntza prozesua erregulatzen lagundu behar du, eta ikasi duena eta gelako errealitatearekin lotura egiten lagundu behar du. Bestalde, ikaskuntza prozesu horretan ikaslearen aspektu batzuk hobetzen ere lagundu behar du bere ikaskuntzaren planifikazioan. Gainera, ebaluazioak ikasleari formazioan lagundu behar dio, ikasleak bere ikaskuntza prozesuaren gaineko kontrol handiagoa eta ikaskuntzaren gaineko erregulazioa eta erantzukizun hobea izanez.

Bestalde, Casanova (2011) autoreak esaten digun moduan inklusioa lantzeko ebaluazioa antolatu batek baliagarria eta erabilgarria izan behar du ondorengo atalak lantzeko:

- ✓ Ikasleak ezagutzeko.
- ✓ Ikasleek ikaskuntza prozesuan dituzten indarguneak ezagutzeko.
- ✓ Ikaslearen ahuleziak zeintzuk diren ezagutu eta hauek gainditzeko
- ✓ Irakaskuntza metodoa eta estrategiak ikasleen ikasteko erara moldatu.
- ✓ Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesua erregulatu, programazioan ikasleentzat onuragarriak diren aldaketak eginez.
- ✓ Ikasle guztiek hezkuntza prozesu onuragarria izan eta gizarteko partaide egoki bat izateko hezi.

Ebaluazio mota ezberdinak aurki ditzakegu, ordea, kurtsoaren momentua kontutan hartuta. Kurtsoaren hasieran egiten diren ebaluazioen helburuak diagnostiko funtzioa hartzen du, hau da, ikasle bakoitzaren ezaugarriak zeintzuk diren ezagutzeko, bai ahuleziak eta bai trebeziak (Montero, Etxabe eta López, 2017; Ministerio de Educación y Ciencia, 2006). Diagnostiko honekin, kurtsoan zehar planifikatuko den ebaluazioa osatuko duten adierazleak ikasleen ezaugarriekin bat egiteko (Echeita eta Calderón, 2014 in López-Vélez, 2018).

Laburbilduz, kalitatezko hezkuntza bat lortu dela esaten dugunean ez diogu erreferentzia egiten azterketak gainditzeari edo ebaluazioa tradizionalak jartzen dizkigun oztopoak nota on batekin gainditzeari. Kalitatezko hezkuntza lortzeaz hitz egiten dugunean ikaskuntza prozesua ikaslearen zentratu denean eta prozesu horretan ikasi duenak bere egunerokotasunean edo bizitza modu baliagarri batean erabiltzeko gaitasuna lortzeari deritza. Horretarako, ezinbestekoa da ikastetxeak baliabide ezberdinak izatea ikaslearen hezkuntza prozesuan ager daitezkeen oztopoei aurre egiteko, metodologia eta ebaluazioa malgua izatea ikaslearen ezaugarrietara moldatzeko, eta ikaslearen parte hartzea eta konpromisoa gela barruan inklusioa lantzerako orduan (Verdugo y Aguilera, 2008)

Ikusi dugun moduan, ezinbestekoa da ikastetxeetan ikaskuntza inklusioa lantzea ikasleek kalitatezko hezkuntza izan dezaten. Hau lantzea prozesu luze eta zaila izaten da sarritan, bidean hainbat oztopo agertzen baitira. Gaur egun, ikastetxe askok erabiltzen duten estrategia edo instrumentua ikaskuntza zerbitzua da. Ikaskuntza

zerbitzuek inklusioa lantzeko hainbat bide zabaldu eta hauek sendotzen laguntzen dute. Hurrengo ataletan autore ezberdinek egindako inbestigazioa eta artikulua kontutan hartuz, ikaskuntza zerbitzua zer den, honen onurak eta ezaugarriak zeintzuk diren azalduko dira.

1.2 IKASKUNTZA ZERBITZUA

Ikaskuntza zerbitzua azken urteotan martxan jarri den hezkuntza metodologia berritzaile bat da. Hori dela eta, ezinbestekoa litzateke aipatzea metodologia hau munduko hainbat txokotan lantzen hasi direla eta izen ezberdinez ezagutzen direla. Metodologia berritzaile hau “Servicio social curricular” izenez ezagutzen da Mexikon, “Trabajo comunal universitario” moduan Costa Rican. Gure inguru hurbilagoan eta metodologia berritzaile honen lehen erabilera izan zuena, Catalanian “Aprendizaje Servicio” bezala ezagutzen da (Tapia, 2007). Euskal Autonomia Erkidegoan, Zerbikas Fundazioa metodologia honen promotorea izanik, Ikaskuntza Zerbitzua izenez ezagutzen da.

Programa edo estrategia honen nondik norakoak aipatzeko hainbat definizio ezberdinak aurki ditzakegu, hainbat adituk esanda. Esaterako, Breda, Groot eta Towleren (2013) ustez, ikaskuntza zerbitzua gela baten barneko hezkuntza prozesua bideratu eta ikasleen beharrei erantzuna ematen dien estrategia bat da. Honela ikasleak, gizartea osatzen duten hiritar adituak bilakatzeko.

Puig-en (2014) iritziz, ikaskuntza zerbitzuaren oinarria pedagogia lantzeari dagokiola dio. Komunitateari eskaintzen zaion zerbitzu eta praktika honetan ikasle bakoitzaren baloreen garapena eta currilumeko edukiak eta gaitasunak ere lantzen dira, betiere umeen beharrei erantzunak bilatzeko estrategia eta metodo ezberdinak erabiliz.

Bestalde, ikaskuntza zerbitzuak bi estrategien konbinaketa bati deritzaio, hala nola, ikaskuntza prozesuari eta aldi berean komunitateari zerbitzu bat ematea, honi hobekuntza batzuk egiteko asmotan. Horretarako, landuko den ikaskuntza zerbitzua ongi bideratuta egotea ezinbestekoa dela dio, izan ere, proiektu horretan parte hartuko duen kidegoak komunitateak dituen ahulezia eta arazoei soluzio ezberdinak bilatzen saiatuko baita (Batlle, 2018).

Martínez-Odriak (2005) ere ikaskuntza zerbitzua, banandu ezin diren bi elementuren binomioa errepresentatzen duela dio. Elementu bakoitza bestearekiko funtsezkoa dela esaten digu prozesua modu egoki batean garatu ahal izateko, honela, bien baturak ikasleak kalitatezko ikaskuntza izan dezan:

- Ikaskuntzak zerbitzua hobetzen du, ikasitakoa modu dinamikoko edo praktikora eraman daiteke eta komunitateari kalitatezko zerbitzu bat emateko aukera sortzen du.
- Zerbitzuak ikaskuntza prozesua hobetu, motibatu, zentzua eman, esperientzia batean bilakatu eta gauza berriak ikasteko aukera ematen du.

2.irudia: Ikaskuntza eta zerbitzua bi elementu binomialak



Oharra: FEVADACE, 2016.

Puig-ek (2014) definizioa emateaz gain, ikaskuntza zerbitzuaren lanketaren garrantzia adierazteko hainbat argudio ematen ditu. Esaterako, metodologia honen bidez ikasleen arteko elkarrekintza, kooperazioa eta lankidetzan oinarritzen den ikaskuntza prozesua aldarrikatzen dela. Bestalde, elkarrekintza dela medio, besteak laguntzeaz gain, ikasle bakoitzak norbere burua ezagutzeko aukerak eskaintzen dituela dio, estrategia honekin emozio ezberdinak, parte hartzeko interesa, konfiantza eta bestelako ezaugarri batzuen lanketa egiten dela.

Laburbilduz, definizio guztiak erreparatuz eta ontzat emanez uler dezakegu ikaskuntza zerbitzua bi elementu osatzen duten prozesua dela, alde batetik ikaskuntza eta bestetik zerbitzu bat ematea. Hezkuntza proiektu bat bezala definitzen du, non parte hartzaileek komunitatea hobetzeko asmoz lan egiten duten eta protagonismo osoa ikasleek izaten duten(Tapia, 2016)

1.2.1 IKASKUNTZA ZEBRITZUAREN OSAGAIK

Atal honetan, ikaskuntza zerbitzuaren osagaiak eta ezaugarriak aipatuko dira. Azalduko diren ezaugarri hauek aukera ugari eta ezberdinak sortzeko bide zabaltzen dute ikaskuntza zerbitzu bat diseinatzerako orduan. Proiektu hauek, bost ezaugarri komun partekatzen dituzte, ezinbestekoak direnak ikaskuntza zerbitzu bat aurrera eramaterako orduan (Rubio,2007).

Ikaskuntza zerbitzua hezkuntza eredu bat da, eta osagai hauen integrazioaren bidez hartzen du zentzua (ARCE PROGRAMA, 2014):


- ✓ **Ikaskuntza:** Hezkuntza-asmo esplizitua dauka, ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak eskuratzearekin lotua. Bizitzarako ezagutzak eta trebetasunak eskuratzeko prozesua da: ikaskuntza zerbitzuak ikaskuntza-prozesu kontziente, planifikatu eta sistematikoak garatzen ditu. Hori dela eta, ikaskuntza eta herritartasun aktiboaren gauzatzea uztartzen dituen prozesua da.
- ✓ **Zerbitzu solidarioa:** Protagonisten interesa herritartasun aktiboaren aldeko zerbitzura bideratzen du. Zerbitzuak zenbait aukera ematen ditu: aldez aurreko ezagutzak errealitatean aplikatzea, galdera intelektual eta gizalegekoak egitea, eta ikaskuntza berriak eragingo dituzten esperientzien iturri izatea.
- ✓ **Metodo pedagogiko aktibo eta gogoetatsua:** Ikaskuntza zerbitzuaren pedagogiak hainbat oinarri ditu, hala nola, parte-hartze aktiboa, hausnarketa, diziplinartekotasuna, arazoak konpontzea eta lankidetzak.
- ✓ **Sare lana:** Ikaskuntza zerbitzuak sare lana izan behar du, hezkuntza-erakunde formalen jarduna koordinatzeko zerbitzuaren bidez eragin nahi den errealitatean esku hartzen duten gizarte-erakundeen jardunez.
- ✓ **Eragin formatzailea eta eraldatzea:** ikaskuntza zerbitzuak kontzeptuen, emozioen eta jokabideen alorreko edukietan eragiten du: zenbait eremutan aplika daitezkeen gaitasunak garatzen ditu, pentsamendu kritikoa eta erantzukizuna bultzatzen ditu.

1.2.2 IKASKUNTZA ZERBITZU BAT GARATZEKO BALDINTZAK

Aurreko ataletan azaldu den moduan ikaskuntza zerbitzua inklusioan murgiltzeko metodologia eta instrumentu eraginkorra dela ikusi dugu. Estrategia honek hainbat aukera ezberdin sorrarazten ditu, gela barruan edo sozialki baztertuta dauden pertsonekin lan egiteko eta beraien egoera aldatzeko. Honela, ikasle guztiei aukera eta eskubide berdinak emanda protagonista aktiboak bihurtuz eta beraien garapen pertsonala eta autonomia lantzeko aukera sortuz (Mendía. y Moreno,2010)

Horretarako, ezinbestekoa da ikaskuntza zerbitzua egokiro lantzea, beraz, ikaskuntza zerbitzuak lantzerako orduan, bost ezaugarri komun izatea ezinbestekoa da: Ikaskuntza, zerbitzua, proiektua, parte-hartze aktiboa eta hausnarketa.

2.Irudia: Ikaskuntza zerbitzua garatzeko baldintzak



Oharra: ARCE programa, 2014, p.10.

Ikaskuntzari dagokionez, ikaskuntzak sistematizatu izan behar du, eta gainera lotuta egon behar da, alde batetik, curriculumarekin eta bestetik eman nahi den zerbitzuarekin. Irakaskuntza-ikaskuntzako prozesu kontzientziatu, planifikatu eta sistematikoak garatu behar ditu. Ikaskuntza zerbitzuan, protagonistek ikasiko dutena eta honekin lotu nahi diren helburuak zehaztuta egon beharko dira, martxan hasi aurreko etapan, prozesua martxan dagoen bitartean eta hau bukatzen denean. Ikaskuntza zerbitzuak edukien diziplinarteko lanketa eta oinarrizko gaitasunen sustapena bideratzen du (ARCE PROGRAMA,2014).

Bigarren oinarrizko baldintza **zerbitzua** da. Helburu nagusia inguru hurbileko, gertuko zein orokorreko benetako beharrei erantzun behar die, inguru hori hobetzea helburu hartuta. Ikaskuntza zerbitzuaren proiektuek alteritate eta elkarrekikotasun printzipioak dituzte inspirazio-iturri. Horrenbestez, ikaskuntza zerbitzuaren eremuan gauzatzen den zerbitzuak ekintza asistentzialistak saihesten ditu eta inguru horretako protagonistei, ikastetxeko giroari eta jardunaren inguruneari hobekuntzak bilatzeko formatzaile eta eraldatzaile izaerari indarra ematen dio. Horregatik, hezkuntza-erakundeen eta gizarte-entitateen arteko sare lana behar-beharrezkoa da (ARCE PROGRAMA,2014).

Hirugarren baldintzari dagokionez **proiektua** da. Asmo pedagogiko argia ezinbestekoa da, baita inplikaturako eragile guztiek planifikaturako eta ebaluatutako heziketa-

proiektuak ere. Ikaskuntza zerbitzuan kalitatezko zerbitzua eman behar da, eta ekintza horietatik eta eragiten dituzten bizipenetatik dimentsio pedagogikoa ateratzeko aukera sortuko da (ARCE PROGRAMA, 2014).

Parte-hartze aktiboari dagokionez, ikaskuntza zerbitzuaren esperientziak parte-hartze aktiboan eta parte-hartzaile guztien protagonismoan oinarritu behar dute, proposamen informatibo soilak alde batera utzita. Protagonistek proiektuaren fase bakoitzean esku hartu behar dute, hala nola, premien detekzioan, hobetzeko proposamen diseinuan, etab. (ARCE PROGRAMA,2014).

Azkenik, **hausnarketa** aipatzea ezinbestekoa da. Ikaskuntza zerbitzuaren proiektuak egokiro abiarazteko, une bakoitzean egiten dutenaren eta horrek dakarren onura sozialaren benetako kontzientzia hartu behar dute parte-hartzaileek. Prozesuan zehar egindako ikaskuntzei eta zerbitzuaren eraginari buruzko hausnarketa egitea ezinbestekoa da. Hausnarketa horrek bideratzen du ikaskuntza berriak integratzea eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko egokitzea (ARCE PROGRAMA, 2014).

1.2.3 IKASKUNTZA ZERBITZUAREN EGITURA

Ikaskuntza zerbitzuan hiru momentu garrantzitsu daude; zerbitzuaren prestakuntza, martxan jartzea eta ebaluazioa. Hiru momentu hauek zazpi etapa ezberdinetan banatzen dira, etapa bakoitzean gauza ezberdinak burutuz. Etapa hauen ordena, intentsitatea edo garrantzi espezifikokoak ezberdinak izan daitezke ematen den zerbitzuaren arabera. Izan ere, kontutan izan behar baitira proiektu mota, taldearen adina, eskolaren gaineko aurretiko esperientzia...etab. Aurretik aipatu ditudan zazpi faseak ondorengoak dira (Puig, Martin y Batlle,2008):

Lehenengo faseari dagokionez **zirriborroa lantzea da**. Fase honetan aurretiaz pentsatuta egon den ikaskuntza zerbitzuaren gaineko lehen erabaki eta adostasunak hartzen hasi behar da. Fase honetan lau pausu bereiz ditzakegu;

- ✓ **Nondik hasiko garen erabaki** behar dugu, zer egin dezakegun eta zer ez, zein instituzioen edo laguntzailerren laguntza jasoko dugun eta zein lekutan burutuko den ikaskuntza zerbitzua.
- ✓ **Taldea eta osatzen duten partaideak nola dauden ezagutu**, neska- mutilen interesak zentzuk diren jakin eta beraien maila akademikoa eta dinamika zein den ezagutu.
- ✓ **Komunitatearentzako onuragarria izango den zerbitzua zein izango den erabaki**, beharrezkoa, interesgarria eta baliagarria delarik.

✓ **Emango den zerbitzuarekin zein ikaskuntza landuko den erabaki.**

Bigarren faseari dagokionez, **erakunde sozialekin hartu-emanaz izatea izango da.** Kasu gehienetan beharrezkoa da beste instituzio batzuen laguntza zerbitzu hauek eskola batean aurrera eramaterako orduan. Normalean zuzendaritza taldeak soilik ezin izaten ditu ekintza hauek aurrera eraman, horretarako, guraso elkarteak, aholkulari taldeak eta bestelako laguntza batzuen beharra ezinbestekoa izaten da. Puig, Martín eta Batlle-k (2008) diotenez, fase honen bukaeran beharrezkoa litzateke zerbitzuan parte hartuko duten taldeen eskutik beraien laguntza ziurtatzen duten dokumentu bat, non beraien hitza eta sinadura ematen duten zerbitzu hau aurrera eramateko laguntza eskainiko dutela.

Hirugarren fasea **plangintza** da. Prozesu honetan ezinbestekoa litzateke dokumentu labur bat idaztea proiektua aurrera eramateko gida bezala erabilgarri izango dena. Dokumentu honetan idatziko dena, sarritan gertatzen den moduan, martxan jarri eta errealitatearekin bat ez da etorriko, baina komenigarriagoa da gida hau izatea eta gehiengo antolatua izatea eta momentuan bertan agertutako arazoei inprobisazioz ez erantzutea. Fase honen bukaeran, proiektuaren titulu edo izena finkatuta egon beharko da, hau honela ez bada, gutxienez neska-mutil taldearekin proiektuaren izena zein modutan hautatuko den erabaki beharko da (Puig, Martín y Batlle,2008).

Laugarren fasea **prestakuntzari dagokio**. Fase honetan, behin nondik norakoak eta proiektuaren ezaugarriak definituta, prestakuntzan zehar neska-mutilen proposamenak baloratu eta plangintzaren parte izatea ezinbestekotzat jotzen da, honela, beraien interesetara moldaketak eginez eta denen parte hartzea bultzatuz. Fase honen bukaeran, ikasleen parte hartze aktiboa kontutan izanda beharrezkoa litzateke beraien egindako plangintzaren zerbait prestatzea (mural bat, dossier bat, aurkezpen bat...) (Puig, Martín y Batlle,2008).

Bosgarren faseari dagokionez, proiektua **martxan jartzeari** dagokio. Fase honetan, aurreko ataletan eta plangintza ezarri diren akzio edo ekintzetan aldaketak suertatuko dira. Ez dira hasieratik planteatu bezala aterako, momentuan momentuko arazo ezberdinak agertuko direlako, hori dela eta, beti atentzio jarrita izan beharko dugu eta suertatzen diren arazoei momentuan erantzun bat bilatu. Fase honen bukaeran, egindako guztiaren materiala izan behar dugu, grafiko edota entzumen-bideo eran (Puig, Martín y Batlle,2008).

Seigarren faseari erreparatuz, **bukaera** izena hartzen du. Fase honetan, prozesuan zehar izan diren alde positibo eta negatiboaren gaineko autokritika eta balorazioa egingo

da. Horretarako funtsezkoak diren bi alderdi kontutan izango dira, alde batetik ikaskuntza, eta bestetik zerbitzua. Fase honen bukaeran, ikasleen egin duten balorazioa izatea garrantzitsua da. Balorazio hau metodo ezberdinetakoa izan daiteke, bideo bat, mural bat, komunikabideren batean agertutako iragarkiren bat... etab. (Puig, Martín y Batlle,2008).

Zazpigarren eta azken faseari dagokionez, **perspektiba ezberdinetatik begiratutako ebaluazioa** izena hartzen du. Fase honetan, behin ikasleekin proiektua bukatu eta baloratu, hezitzaileek denbora hartu beharko dute egindako lanaren gaineko autokritika bat egin eta izandako bizipenak kontutan izanda, eskolaren partaidetza, gurasoen partaidetza, beste entitateen esku hartzea eta abarren gaineko balorazioa egingo da. Fase honen bukaeran, bizipenetan oinarrituta proiektuaren inguruko memoria txiki eta praktikoa bat egingo da, hau geroago, beste instituzio edo eskola batzuentzako ere baliagarri izan dadin (Puig, Martín y Batlle, 2008).

Behin ikaskuntza zerbitzuaren egitura ezagututa eta zazpi faseen nondik norakoak ulertuta ikus dezakegu prozesu luze eta lan karga handia hartzen duen proiektua dela. Baina betiere, aurretik aipatu ditugun egiturak mantendu, modu egokian landu eta garatzen badira, ikaskuntza zerbitzuaren bidez ikasleen hezkuntza prozesua are aberasgarriago izateko aukera sortzen da. Ikaskuntza zerbitzuak dituen onurak zeintzuk diren aztertzeko, hurrengo atalean aipatuko ditugu zergatik jotzen den hain garrantzitsutzat gaur egungo ikastetxeetan metodologia hau erabiltzea, eta honek zer onura dakartzan ikasgela batean eta ikasleengan.

1.2.4 IKASKUNTZA ZERBITZUA LANTZERAEN ONURAK

Ikaskuntza zerbitzua oinarrizko kompetentziak lantzeko instrumentu oso aberatsa da. Hainbat testuinguru ezberdin eskaintzen dizkigu ikaskuntza ezberdinak gauzatzeko, eta proiektu bat izanda, ikasleak proiektu honek dituen konplexutasunei aurre egin beharko diote. Konplexutasun edo arazo hauen aurrean, ikasleen erantzunak bilatzeko estrategia eta metodologia ezberdin batzuk bilatu beharko dituzte, aldi berean norberaren autonomia landuz. Modu honetan, hainbat alderdi landuko dituzte ikaskuntza zerbitzuaren ondorioz: sormena, pentsamendu estrategikoa, proiektu baten ebaluazio eta garapena etab., betiere proiektuaren protagonistak ikasleak direlarik (Gallardo, 2012).

Ikaskuntza zerbitzuaren prozesuak gauzatzeko interesa eta egokiera justifikatzen eta azaltzen duten arrazoiak askotarikoak dira. Bost eremu nagusitan sailka daitezke. (ARCE programa, 2014).

Protagonistei dagokienez, hauek dira ikaskuntza zerbitzuaren eraginak:

- ✓ Onuragarria da, bai zerbitzua ematen duenarentzat, bai hartzen duenarentzat: elkarri mesede egiten diote.
- ✓ Ikaskuntzaren aldeko motibazioa eragiten du, honela, ikasle bakoitzaren ikaskuntza prozesua bizipenezko eta kritikoa izanik.
- ✓ Parte-hartzaileak protagonistak izatea dakar, bai ikastetxeetan, bai gizartean, eta irudi positibo bat partekatzen dute.

Hezkuntza-erakundeari dakarzkion onurak ondorengoak dira:

- Neska-mutilen garapen akademikoa, gizalegekoa, etikoa, pertsonala, soziala eta profesionala bultzatzen du, eta hezkuntza errendimendua areagotzen du.
- Hezkuntza-proposamen eta metodologia berritzaileak abiarazten ditu.
- Baztertuta izateko arriskuan dauden ikasleak hezkuntzan barneratzea bultzatzen du.

Gizarte-erakundeetan honako onura hauek ditu:

- Komunitateko beste eragile batzuekin batera koordinatuta lan egiteko aukera ematen du, gizartea hobetzea helburu hartuta.
- Lagungarria da neska-mutilak gizartearekin arduratsuak izan daitezen, eta etorkizunean kausa solidarioekin konprometi daitezen.

Komunitateari dagokionez hauek dira ikaskuntza zerbitzuaren eraginak:

- Hezkuntza-erakundeen eta gizarte-entitateen sare-lana bultzatzen du.
- Lurraldeko elkarte-ehuna sendotzen du.

Eremu politikoarengan onura hauek ditu:

- Herritartasuna eta herritar-erantzukizuna hobeto gauzatzera bultzatzen du.
- Iraunkortasuna bideratzen duen proposamena da; izan ere, baliabideei probetxu ateratzen die eta ahaleginak bateratzen ditu, inguruko hezkuntza -eta gizarte-premiei erantzuteko.

Laburbilduz, ikusi dugun moduan asko dira alde positiboak ikaskuntza zerbitzu bat lantzeko. Aurreko ataletan ikusi dugun moduan ikaskuntza zerbitzua hainbat ikastetxeren urteko plangintzan sartzen ari da, inklusioa lantzeko metodologia edo instrumentu onuragarria baita. Honela, ikastetxeetako ikasleak beraien autonomia landu, bakoitzaren kritikotasuna garatu eta etorkizunean bizi diren gizartea aldatzeko gai diren herritar zentzudunak bilakatuz (Verdugo eta Aguillado, 2008).

Alderdi positibo guztiak kontutan izanda, hasieran azaldu den moduan, unibertsitatetik abiatuta ikaskuntza zerbitzu bat prestatu eta martxan jarri nuen Lekeitioko zentro batean ikastetxe horri zerbitzu bat emateko asmoz. Hau dela medio, ikastetxearen ahuleziak zeintzuk diren eta hauek hobetzeko proosamenak bilatzeko asmotan, betiere, helburu nagusia inklusioari indarra ematea delarik. Hurrengo ataletan, martxan jarri den ikaskuntza zerbitzuaren nondik norakoak azalduko dira.

2-TESTUINGURUA

Martxan jarri dudana ikaskuntza zerbitzua Lekeitioko ikastetxean burutua izan da. Ikastetxea publikoa da eta ingurunearen hizkuntza, kultura eta giza errealitatea kontutan hartuz, aurrez aurre duen gizartearen eskakizunei, dagozkion ezaugarri bereziak aintzakotzat hartuz, erantzun egokia ematen saiatzen da. Eskola komunitate honen partaideak, (ikasle, guraso, irakasle, ...) elkar-lanean, umearen nortasunaren garapenean lagungarri izatea dute helburu. Irakaskuntza prozesua, Haur Hezkuntzaren hasieratik, Lehen Hezkuntzaren bukaera arte, D ereduan eskaintzen da. Guztira, Haur hezkuntzako 6 gela eta Lehen Hezkuntzako 12 gela daude, hau da, 300 ikasle inguruk osatua.

Eskola honek nahiz eta ezaugarri ugari izan, horietako bat dibertsitateari erantzun egokia ematea da. Ikastetxe herrikoia eta publikoa izanda, inguruko herri txikietako ikasle ugari eta atzerritik etorritako ikasleek ere osatzen dute eskola hau. Bestalde, behar bereziak dituzten ikasleei ere atentzio berezia ematen zaiela eta lan handia egiten dutela aspektu honetan goraiatu beharra dago.

Eskola ez oso handia izatearen ondorioz, eskolako osatzen duen irakasle taldea nahiko txikia da. Irakasle talde hori, Haur Hezkuntzatik hasi eta Lehen Hezkuntzaraino honako kide hauekin osatuta dago; LH eta HH artean 26 tutore, Espezialistak (Atzerriko Hizkuntza, Gorputz Hezkuntza, Musika eta Erljioa) 7 irakasle, Aholkulari 1, ALE 1 eta P.T-ak 3 irakasle. Nahiz eta irakasle gutxi egon eta batzuk beste herri batzuetakoak izan, aipatu beharra dago irakasle asko herrikoak bertakoak direla, hori dela eta ikasle askoren gurasoek elkar ezagutzen dute, eta edozein arazoren aurrean

komunikazio eta harremana ere estuagoa da. Sarritan, eskola askotan gertatzen den arazoetako bat hori da, irakasleek gurasoekin zuzeneko harremanik ez izatea eta irakasleek ikaslearekiko informazio jakin batzuen ezagupenik ez izatea. Horren ondorioz, ikasle batzuen inklusioa lantzerako orduan arazoak sortzen zaizkio irakasle taldeari. Kasu honetan, ikastetxe honen puntu aberasgarrietako bat da ikasle-guraso harreman zuzena dagoela da, honela, ikasle guztien arazoak ezagutu eta inklusiotasuna modu egoki batean bultzatzeko eta ikaskuntza prozesuan mugak edo oztupoak agertzen badira erraztasun handiagoz esku hartzeko.

3- IKASKUNTZA ZERBITZUAREN PROZESUA

Lehenik eta behin, ezinbestekoa da aipatzea ikaskuntza zerbitzua zer zen eta honen nondik norakoak zeintzuk ziren ez nituela ezagutzen. Gai honen gaineko nire interesa GRAL-aren inguruan egindako hasierako formakuntzetan hasi zen. Izan ere, bilera hauetan Ana Luisak proposatu eta azaldu zigun Ikaskuntza Zerbitzua zer zen, honen nondik norakoak zeintzuk ziren eta hau lantzeak ikastetxeari eta baita ikaskuntza zerbitzua lantzen duenari ematen dizkion onurak. Bileran power point aurkezpen batez bidez jaso genuen gaiaren gaineko informazio, gainera, Leioako EHU Unibertsitatean landutako Ikaskuntza Zerbitzuaren bideo bat ikusi genuen. Momentu horretan konturatu nintzen aukera ezin hobea dela Ikaskuntza Zerbitzua bat diseinatu, landu eta martxan jartzea.

Ikaskuntza zerbitzuaren prozesuarekin hasi aurretik, hainbat bideo ezberdin eta artikulu irakurri behar izan nituen. Ikaskuntza metodologia hau aurrera eramatea berria zen niretzat. Hori dela eta, ikaskuntza zerbitzuaren helburua zein den, eta hau lantzeko estrategia eta metodoen nondik norakoak zeintzuk ziren barnetik ezagutu behar izan nituen.

Behin gaian murgilduta eta nondik norakoak erreparatuta, EHU-KO GRAL-eko nire zuzendariak oniritzia eman ondoren, ikastetxearekin kontaktuan jarri nintzen. Hemen, zuzendaritzarekin pare bat bilera izan nituen. Ikaskuntza zerbitzuaren gainean hitz egin genuen, eta metodologia hau ikastetxean nola planteatu, antolatu eta nola martxan jarriko genuen hitz egin genuen. Segituan eman zidan baiezkoa ikastetxeko zuzendaritza taldeak, izan ere, ikaskuntza zerbitzuaren bidez ateratako datuak eskolarentzako onuragarriak izango zirelako.

Zuzendaritza taldearekin izandako bileretako batean, orain dela hiru urte hain zuzen ere, Booth eta Aincow-ek (2015) sortutako "Index for inclusion" materialari begirada

sakon bat eman ziotela aipatu zidan beraien ikastetxeko inklusioa sendotzeko asmotan. Galdetegiak erreparatu eta beraien ikastetxerako diseinu batzuk egiten hasi ziren, baina azkenean beste proiektu batzuk zirela medio "Index"-aren lanketa albo batera geratu eta azkenean ezer ez zela esan zidan. Hori dela eta, ikastetxearen proiektu martxan jartzeko laguntza eskatu zidan. Proposamena entzun ostean, eta Booth eta Aincow-en materiala ikusi ondoren, baiezkoa eman nien, alde batetik interesgarria iruditu zitzaidalako "Index for inclusion" prozesuak eskaintzen zuena, eta bestetik nire herriko eskola publikoa aurrera eramateko lagungarria zelako.

"Index for inclusion"-arekin martxan jarri nintzen segituan. Barnetik aztertu nuen eta zuzendaritzarekin momenturo kontaktuan nengoen prozesua aurrera eramateko nondik norakoak erabakitzeko. Booth eta Aincow (2015) idazleek proposatzen dituzten galdetegiak ikasle, irakasle eta gurasoen artean egitea pentsatu genuen.

Galdetegietan agertuko ziren galderak hautatzea ez zen lan erraza izan. Alde batetik galdera batzuk zorrotzegiak edo zabalegiak zirelako, bestetik galdera kantitatea gutxiago edo gehiago izan behar zuela etab... Galdera sorta zabala egin nuen. Galdera hauek euskaraz eta gaztelaniaz erantzun zitezkeen, kontutan izanda, atzerriko ikasleak daudela eta hauen gurasoek gaztelaraz egiten dutela beraien egunerokotasunean. Azkenik, bilera ezberdinak izan nituen galdera hauek finkatu eta eskolaren interesak zeintzuk ziren zehazteko. Horretarako, banan banan eskolako irakasle batzuekin, ikastetxeko aholkulariarekin, zuzendaritza taldearekin eta guraso elkartearekin batzartu nintzen.

Galderak behin pentsatuta zeudela, diseinuari ekin nion. Lehenik eta behin, ikasleen galdetegiak egin nituen (eranskina 8.3). Ikasleen galdetegi hauek "irakurketa errazaren teknikaren" oinarritzat hartuta egin nituen. Galdera eta adierazleak laburrak eta ulergarriak ziren, eta erantzuteko hiru aukera "Bai", "Ez" eta "Ez dakit". Gainera ikasleen atenzioa erakartzeko, erantzun bakoitza poztasun aurpegi, tristura aurpegi eta galdera ikur batekin erantzuten zituzten.

90 ikasle horien inkestak Lehen Hezkuntzako bigarren mailan hasi eta bosgarren mailara arte pasatu nituen, maila bakoitza gela batek edo birek osatzen dutelarik. Inkestaren bukaeran, ikasleei proposamen zabal bat egin zitzaien. Hemen bi irudi ezberdin jarri nituen, hala nola, tximeleta bat pozik eta olagarro bat triste. Tximeletak honako hau esaten zuen "Idatz ezazu nire hego bakoitzean ikastetxetik gehien gustatzen zaizun zerbait". Bestalde, olagarroari zegokionez, honako hau jarri nuen "Olagarroa haserre dago, gertatu den zerbait ez zaiola gustatu dirudi. Eta zuri zer ez

zaizu gustatzen zure ikastetxetik? Idatzi olagarroaren beso bakoitzean gustatzen ez zaizun ikastetxeko gauzaren bat.

Gurasoen inkestei dagokienez, internet plataformaren bidez jarri nuen martxan (eranskina 8.2). Galdetegi honetan 96 gurasok hartu zuten parte eta proposatutako galderen aurrean beraien erantzunak eman zituzten. Galdetegi hau interneteko web orri batean sortu nuen, ondoren, inkesta hau gurasoen emailletara zabaldu eta beraien erantzunak iristen zitzaizkidan. Galdera eta adierazleei dagokienez, hainbat gai ezberdinetara hurbiltzen diren galderak aipatzen dira, hala nola, “Familiari ikastetxean parte hartzeko aukera ematen zaio”; “Irakasleak ikasle guztien arazoaz arduratzen dira”; eta “Irakasleak zailtasunak dituzten ikasleen gaineko iritzi negatibo edo iraingarririk ez egotea lortzen du”. Era honetako galdera edo adierazleak erantzuteko hiru aukera aurkezten zitzairen “Ados”, “Ez ados” eta “Ez dakit”. Bestalde, galdetegia bukatzeko, azken atal bat jarri zitzairen. Hemen, galdera zabala zen, eta guraso bakoitzak ikastetxearen gaineko ohar edo aipamen bat egin zezakeen, hau da, ikastetxeari buruz gustatzen zaion zerbait edota oztopo edo alderdi negatiboak aipatzeko ere. Guraso taldeak emandako erantzun guztiak internet plataformaren bidez galdera bakoitzean egondako erantzunen ehunekoak atera nituen grafikoak erabiliz.

Azkenik, **irakasleen eta zuzendaritza taldearen** inkestei dagokienez, gurasoekin erabilitako estrategia berdina erabili nuen. Kasu honetan, 35 izan ziren irakasle eta zuzendaritzako kideen artean inkestak erantzun zituztenak (eranskinak 8.1). Aurretik aipatu bezala, internet plataformaren bidez helarazi zitzaizkien erantzun beharreko galdera eta adierazleak. Irakasleei eta zuzendaritza taldeari proposatutako galdera eta adierazleak ezberdinak izan ziren gurasoen inkestekin alderatuz, baina erantzuna emateko metodoa bera izan zen. Hain zuzen ere, adierazle eta galdera bakoitza erantzuteko hiru aukera izan zituzten “Ados”, “Ez ados” eta “Ez dakit”. Irakasleek eta zuzendaritza taldekideek galdera eta adierazle bakoitzaren aurrean emandako erantzunak ere grafikoki antolatu nituen bakoitzaren ehunekoak aterata.

Inkestak beteta nituela, umeenak paperean (90 galdetegi), guraso (96 galdetegi) eta irakasleen (35 galdetegi) internet plataformaren bidez, zuzendaritza taldearekin batu nintzen. Hemen balorazio orokor bat egin genuen, agertutako zalantza edota eskolaren ahulezia eta indar-guneak zeintzuk ziren ikusi genituen. Egun batzuen buruan, behin datuak bildu eta zehar analisisia egin ondoren, power point baten bidez aurkezpen bat egin nuen. Aurkezpen hau ikastetxeko gela batean egin nuen, hemen zuzendaritza, irakasle talde, guraso elkarte eta aholkulari taldeari egin nien. Aurkezpen honetan

jasotako datuak eta eskolak zein aspektu hobetzeko dituen aipatu nien, betiere ikasle guztien inklusioa kontutan izanda.

Behin aurkezpenak egin ondoren, galdetegiek erakutsitako emaitzak erreparatuta eta baloratuta, ideia eta proposamen berriak aipatu genituen. Hemen, erreakzioa ezberdinak agertu ziren, alde batetik irakasle batzuenak eta zuzendaritza taldearenak, kasu batzuetan ados eta beste batzuetan ez ados zeudelarik. Orokorrean, egindako bilerak hainbat aspektu hobetzeko proposamen ezberdinak pentsatzen hasteko aukera sortu zen. Horrela, hurrengo hilabeteetan ikastetxeak dituen ahuleziak hobetzeko asmoz, estrategia eta metodologia ezberdinen erabilera indartuz eta ikastetxeko aspektu ezberdinak sendotuz.

4-LORTUTAKO EMAITZAK

Atal honetan ikaskuntza-zerbitzuan zehar landu diren galdetegietan guraso, ikasle eta irakasleek eman dituzten erantzunen analisia egingo da. Prozesu honetan, 90 ikasle izan dira galdetegiak erantzun dutenak. Bestalde, zuzendaritza talde eta irakasleak 35 izan dira eta gurasoak 96 izan dira. Jarraian, adierazle bakoitzak izan dituen erantzunen ehunekoak agertuko dira. Kasu batzuetan, erantzuna laguntzeko grafikoak agertuko dira alboan. Adierazle guztien erantzunak bukaeran agertuko dira eranskin gisa (erankinak 8.4, 8.5 eta 8,6)

4.1 Ikasleen inkesten emaitzak

Ikasleek egindako galdeketetan izandako emaitzen analisia azalduko dut ondorengo ataletan (eranskina 8.4). Ikasleen galdetegiak 23 galderaz osatua izan da eta Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik seigarren mailako geletan landu da, 90 ikasle inguruk erantzun dituzte galdera hauek. Honako hauek izan dira galdetegitik ateratako emaitzak..



-Ikastetxera pozik etortzen naiz egunero.


Adierazle honi dagokionez, erantzunak erreparatuz barietate zabala dagoela esan dezakegu; izan ere, %48,3k “Bai” erantzun du, %29,3k “Ez” erantzuna eman du, eta beste%22,4ak ez dakiela erantzun du. Ikus daitekeen moduan, ikasle gehiago joaten

dira pozik eskolara joaten ez direnak baino, baina beraien emozioen gaineko zalantzak duten ikasleen ehunekoa ere nahiko altua da.

Nire irakasleekin gustura nago, ez nuke inor aldatuko.

Ikasle gehienak gustura daudela beraien irakasleekin dirudi. Izandako emaitzetan %63,8k “Bai” erantzun du. Bestalde, irakasleekin gustura sentitzen ez diren ikasle batzuk ere agertzen dira, hala nola, ikasleen %15k “Ez” erantzuna eman du. Azkenik, %20,7ak “Ez dakit” erantzuna eman du.

1.irudia: Ikasleen arteko harremana



Ikasgelako kide guztiak daukagu harreman ona elkarrekin.

Galdera honek ikasleen iritzi oso ezberdinak jakinarazi dizkigu. Ikasleen %29,3k soilik esan du “Bai”. Beste ikasle talde batek, hain zuzen ere, %36,2k “Ez” erantzuna eman du, eta azkenik, %34,5ak “Ez dakiela” adierazi du. Laburbilduz, ikasle

gehiengoaren ustez ez dago harreman ona ikasgelako kide guztien artean.

Ikastetxean lagun asko ditut, bai neska eta bai mutil

Galdera honetan ikasle gehienak ados daudela ematen du. %87,9k “Bai” erantzun du.%6,9k “Ez” erantzun du eta geratzen den %5,2ak “Ez dakit” erantzuna eman du. Aurreko galderan kide guztien artean ez dagoela harreman ona esan dute ikasleek, baina kasu honetan, nahiz eta denak elkarrekin harreman ona ez izan, gehiengoak eskolan eta gelan lagun asko dituela adierazi du.

Noizbait, gela barruan babes edo lagunik gabe sentitu naiz

Galdera hau oso interesgarritzat jo nuen, eta horrela izan dira emaitzak. Ikasleen %31k “Bai” erantzun du. Gehiengoari dagokionez %48,3k “Ez” esan du eta azkenik “ez dakit” erantzun duen ehunekoa %20,7koa izan da. Ikus daitekeenez, ikasle gehienek gela barruan babesa edo laguntza sentitzen dute, baina oraindik badago jendea babes gabe edo zalantzan sentitzen dena.

Arazoren bat dudanean, taldekideak laguntzeko prest daudela sentitzen dut.

Adierazle honetan ikaslearen gehiengoak baietz eman du, izan ere “Bai” erantzun duten ikasleen portzentajea %75,9koa izan da. Bestalde, “Ez” erantzuna eman

dutenen ehunekoa %13,8koa izan da. Azkenik, zalantza izan dutenak eta “Ez dakit” erantzun dutenak %10,3a izan da.

Arazoren bat dudanean, irakasleari galdetu eta beti zalantzak argitzeko prest dago.


Ikasleen portzentaje altu batek beraien irakaslearengan konfiantza dutela adierazi dute, izan ere %74,1k zalantzak argitzeko prest dagoela adierazi eta “Bai” erantzun duelako. Bestalde, ikasle oso gutxiengoak “Ez” erantzun du, izan ere, %8,6k. Azkenik, %17,2ak ez dakiela adierazi du.

Irakaslea azalpenak ematen dagoen bitartean atentzio handiz eta isiltasunez entzuten diot.

Ikasle gehienek irakaslearen azalpenen aurrean adi egoten direla adierazi dute, izan ere, ikasleen %62,1k “Bai” erantzun du. Bestalde, oso portzentaje baxua izan da atentziorik jartzen ez dutela esan duten ikasleak, hau da,%6,9 soilik. Azkenik, zalantza adierazi eta ez dakiela esan duten ikasleen ehunekoa ere nahiko altua izan dela esan dezakegu, hain zuzen ere, %31a.

Irakasleak gelako ikasle guztiak berdin tratatzen ditu, batzuk nota hobetoak izan ala ez.

2.irudia: Ikasleek irakasleengandik tratu berdina jasotzen dute



Gelako ikasleen gehiengo ados dago ikasle guztiak berdin tratatzen direla esaterako orduan. Hori dela eta, ikasleen %64,9k “ Bai” erantzun du. “Ez” erantzun duen ikasleen ehunekoa %21,1 izan da. Azkenik, %14ak “ Ez dakit” erantzun du.

Askotan, lan ezberdinak taldeka egiten ditut.

Adierazle honen aurrean, ikasle gehienak ados daude eta %77,6k “ Bai” erantzun du. Oso ikasle gutxi izan dira “Ez” erantzun dutenak, hain zuzen ere, %5,2 soilik. “Ez dakit” erantzun ikasleen portzentajea %17,2a izan da.

Taldean lan egiten dugunean denok parte hartzen dugu.


Ehuneko gehiengoak “ Bai” erantzun du, %60,3koa izan da. “Ez” erantzuna eman duten ikasleak %20,7 izan da. Azkenik, zalantza adierazi eta “Ez dakit” erantzuna eman dutenak %19a izan da.

Nire iritzia ematerako orduan, beste taldekideen txanda errespetatzen dut.

Ikasleen %79,3k “Bai” erantzun eta beste taldekideak errespetuz tratatzen dituela adierazi du. “Ez” erantzun duten ikasleen portzentajea %8,6a izan da. Azkenik, “Ez dakit” erantzuna eman duten ikasleak %21,1a izan da.

Zailtasunak dituzten ikasleei laguntzen saiatzen naiz, eta ez diet modu ezberdin batean tratatzen.

3.irudia: Ikasleak beraien artean laguntzen dira



Adierazle honen aurrean, ikasle gehienek zailtasunak dituzten beste kideei laguntzen saiatzen direla adierazi dute, hain zuzen ere, laguntzeko prest daudenen portzentajea %70,2a izan da. Bestalde, laguntza ematen ez dutela esaten duten ikasleen ehunekoak %14a izan da. Azkenik, “Ez dakit” erantzun duten ikasleak %15,8a izan da.

Taldean lan egiten dugunean, oihu egin gabe eta tonua zainduz dakidanmodu egokian azaltzen diet taldekideei.

Aurreko galdera batean ikusi dugun moduan, ikasle gehienek beste gelakideak errespetatzen dituztela adierazi dute, kasu honetan ere, %68,4k beste ikasleei tonua zainduz hitz egiten diela adierazi dute. Bestalde, “Ez” erantzun duten ikasleak %10,5a izan da. Azkenik, “Ez dakit” erantzuna eman dutenak %21,1a izan da.

Ariketa bat egitean, erabili dudan metodoa taldekideekin konpartitzen dut.

Ikasleen gehiengoak talde kooperatiboari garrantzia eman eta beste kideei laguntza eskaintzeko prest dagoela ikusi dugu aurreko adierazleetan. Kasu honetan ere, ikasleen %81k “Bai” erantzun eta laguntzeko prest dagoela adierazi du. Ezezkoen kasuan ordea, oso gutxi izan dira “Ez” erantzun dutenak, hau da, %5,2ak soilik. “Ez dakit” erantzuna eman dutenen portzentajea %13,8a izan da.

Pozik sentitzen naiz gelan egiten ditudan ariketekin eta lortutako emaitzekin.

Adierazle honen aurrean ikasle gehienek “Bai” erantzun du, izan ere, %87,9a izan da erantzun hori eman dutenak. Bestalde, “Ez” erantzun dutenak oso gutxi izan dira, %5,2a. Azkenik, “Ez dakit” erantzun dutenak %6,9 izan dira.

Ni baino nota hobeak ateratzen dituzten gelakideekin haserretu eta iraindu egiten ditut.

Ikasleen %8,6k esan dau “Bai”, beste %84,5k “Ez” erantzun du eta ez direla kideekin haserretu eta ez dituztela iraintzen esan dute. Bestalde, zalantza adieraziz “Ez dakit” erantzun dutenak %8,6a izan dira.

Nire irakasleak gelan egiten dudan esfortzua kontutan hartzen du, eta ez bakarrik azterketan ateratzen dudana nota

Ikasleek irakaslearen ebaluatzeko metodoari dagokionez beraien esfortzua ere baloratzen duela esan du. Izan ere, “Bai” erantzun dutenen portzentajea %70,7a izan da. “Ez” erantzun dutenen ehunekoa %6,9koa izan da. Azkenik, “Ez dakit” erantzun dutenak %22,4a izan da.

Gela guztiaren aurrean aurkezpenak egiten ditugunean urduri jarri eta beldurra sentitzen dut.

Portzentajearen arabera gelan ikasle gehienak urduri jartzen direla ikus dezakegu. “Bai” erantzun duten ikasleen ehunekoa %53,4a izan da eta “Ez” erantzun dutenak %31 izan dira. “Ez dakit” erantzun dutenak gutxiengoak izan dira kasu honetan, hala nola, %15,5a.

Gelan egiten ditudan ekintzak etxean kontatzen ditut.

Adierazle honen aurrean ikasleen gehiengoak gelan egiten dutena etxean kontatzen dutela adierazi dute. “Bai” erantzun duten ikasleen ehunekoa %71,9koa izan da. Bestetik, “Ez” erantzun duten ikasleak %19,3a izan da eta “Ez dakit” erantzun dutenak %8,8a izan da.

Gelan egiten dudana, etxean birpasatzen dut.

Ikasleen %50,9k “Bai” erantzuna eman du adierazle honen aurrean. “Ez” erantzuna eman dutenak %24,6a izan dira, eta “Ez dakit” erantzun dutenak %24,6a izan dira.

Gelan zerbait berria ikasi ondoren etxean informazio gehiago bilatzen dut (egunkarian, ordenagailuan, mugikorrean..)

Adierazle honetan emaitzak oso parekatuak izan dira. Ikasleen %41,4k “Bai” erantzun du, aldi berean, “Ez” erantzun dutenak ere parekoak izan dira, izan ere, %41,4ak “Ez” erantzun du. Azkenik, “Ez dakit” erantzun dutenak %17,2-a izan dira.

Ikasleen emaitzak ikusi ostean, ezinbestekoa da balorazio orokor bat egitea eta nabarmentzen diren erantzunak aipatzea. Ikasleen datuak ikusita eta alde negatibo bat aipatzekotan, gelan ikasle guztiek ez dutela protagonismo bera sentitzen aipatu dute, eta hau lantzea ezinbestekoa da inklusioaren aldeko bultzada emateko. Bestalde, beraien arteko harremanak onak direla diote gehienek. Gainera, arazoren bat izanez gero gelakideak eta irakaslea laguntzeko prest agertzen direla erantzun du gehiengoak. Honetaz gain, lan kooperazioa modu egokian lantzen dela aipatzen dute ikasleek, ekintza honen prozesuan zehar errespetua, laguntza, rol banaketa eta berdintasuna bezalako baloreak landuz.

IKASLEEN ERANTZUNEN LABURPENA	
Erantzun positibo gehien izan dituzten galderak	<ul style="list-style-type: none"> -Ikastetxean lagun asko ditut, bai neska eta bai mutil. -Arazoren bat dudanean, taldekideak laguntzeko prest daudela sentitzen dut. -Arazoren bat dudanean, irakasleari galdetu eta beti zalantzak argitzeko prest dago -Askotan, lan ezberdinak taldeka egiten ditut. -Nire iritzia ematerako orduan, beste taldekideen txanda errespetatzen dut. -Zailtasunak dituzten ikasleei laguntzen saiatzen naiz, eta ez diet modu ezberdin batean tratatzen. -Taldean lan egiten dugunean, oihu egin gabe eta tonua zainduz dakidana modu egoki batean azaltzen diet taldekideei. -Ariketa bat egitean, erabili dudana metodoa taldekideekin konpartitzen dut. -Nire irakasleak gelan egiten dudana esfortzua kontutan hartzen du, eta ez bakarrik azterketan ateratzen dudana nota. -Pozik sentitzen naiz gelan egiten ditudan ariketekin eta lortutako emaitzekin. Gelan egiten ditudan ekintzak etxean kontatzen ditut.
Erantzun negatibo gehiena izan dituzten galderak	<ul style="list-style-type: none"> -Noizbait, gela barruan babes edo lagunik gabe sentitu naiz. -Ni baino nota hobekoak ateratzen dituzten gelakideekin haserretu eta iraindu egiten ditut.
Erdizka erantzundako galderak	<ul style="list-style-type: none"> -Ikastetxera pozik etortzen naiz goizero. -Nire irakasleekin gustura nago, ez nuke inor aldatuko. -Ikasgelako kide guztiak daukagu harreman ona elkarrekin. -Irakaslea azalpenak ematen dagoen bitartean atentzio handiz eta isiltasunez entzuten diot. -Irakasleak gelako ikasle guztiak berdin tratatzen ditu, batzuk nota hobekoak izan ala ez. -Taldean lan egiten dugunean denok parte hartzen dugu. -Gela guztiaren aurrean aurkezpenak egiten ditugunean urduri jarri eta beldurra sentitzen dut. -Gelan egiten dudana, etxean birpasatzen dut -Gelan zerbait berria ikasi ondoren, etxean informazio gehiago bilatzen dut (egunkarian, ordenagailuan, mugikorrean..)



4.2 GURASOEN INKESTEN EMAITZAK

Gurasoek erantzundako, galdetegiak internet plataformaren bidez burutuak izan ziren. Galdetegi hauek bi hizkuntzatan erantzuteko aukera zuten, bai euskaraz eta bai gazteleraz (eranskina 8.5). Hain zuzen ere, 96 guraso izan ziren galdetegian egon ziren adierazle eta galderak erantzun zituztenak. Hiru erantzun aukera izan zituzten adierazle ezberdinen aurrean; “Ados”, “Ez ados” eta “Ez dakit”. Hauek dira adierazle ezberdinen aurrean izandako erantzun eta emaitzak.

Nire seme-alaba gustura joaten da eskolara.

Adierazle honen aurrean ia guraso guztien eman dute “Ados” erantzuna eta beraien umeak gustura joaten direla eskolara adieraziz, gehiengo hau %95,5a izan da. Bestalde, ezetz esan dutenak gutxiengoak izan dira, izan ere, %4,5a soilik. Hezkuntza inklusioak duen ezaugarri nagusietako bat guztientzako eskola eta ikasle denak gustura eta eroso egotea dela jakinda, datu hauen bidez eskolan ia-ia osotasunean betetzen duela esan dezakegu.

Nire seme-alabak lagun onak ditu eskolan.

Gurasoen ustetan, %85,3k ados daudela esan dute adierazle honen aurrean, hau da, beraien seme-alabak lagun ona dituela eskolan esanez. Bestalde, “Ez ados” erantzun dutenen portzentajea oso baxua izan da, %7,4a hain zuzen ere. Azkenik, ziur ez dauden eta “Ez dakit” erantzun duen gurasoak %7,4a izan dira.

Nire seme-alabari eskolak bere ikaskuntza prozesuan emaitza eta lorpen handienak lortzeko aukera eta baliabideak eskaintzen dizkio (artikuluak, liburua, teknologia baliabideak...)

Gurasoen %75a izan da “Ados” erantzun dutenen portzentajea, “Ez ados” erantzun dutenak %8,8 izan dira. Azkenik, “Ez dakit” erantzun dutenak %16,2ko ehunekoa izan dira.

Eskolan guztien iritzi eta ideiak kontutan hartzen dira erabakiak hartzerako orduan.

Gurasoen gehiengoa “ados” dago adierazle honen aurrean. Dirudienez, eskolan guztien iritziak kontutan hartzen ditu, izan ere, gurasoen %70,1k horrela adierazi baitu.


Bestalde, “Ez ados” dagoela adierazi duena %11,9koa izan da, eta “Ez dakit” erantzuna eman dutenak %17,9a izan da.

Familiei ikastetxean parte hartzeko aukerak ematen zaizkie (unean uneko jardueretan laguntza ematetik, ikasgelako ekintza batzuetan laguntzeraino)

Adierazle honetan ere gurasoen eta eskolaren arteko erlazioa ona dela ikus dezakegu, izan ere, %92,6k dioenez, gurasoei eskolako ekintzetan parte hartzeko aukerak eskaintzen zaizkiela adierazi dute. Bestetik, ezezkoa eman dutenen portzentajea oso baxua izan da, %2,9a soilik. Azkenik, zalantza izan dutenak eta “Ez dakit” erantzun dutenak %4,4a izan da.

Nire seme-alaba sarritan kexatzen da irakaslearen jarrera batzuek.

4.irudia: Irakasleenganako kexak



Badirudi ikasleak ez direla kexatzen askotan beraien irakasleen jarreraz, horrela dio gurasoen emandako erantzunak erreparatzen baditugu. Izan ere, “Ez ados” erantzun duten gurasoek %82,4ko portzentajea izan dute, “Ados” erantzun dutenak %14,7a izan da eta “Ez dakit” erantzun dutenak %2,9 izan da.

Nire seme-alaba behin baino gehiagotan triste etorri da eskolatik irakasleak beste ikasleen besteko atentziorik jartzen ez diolako.

Gurasoen gutxiengoak eman du “Ados” erantzuna adierazle honen aurrean, %4,4a izan da. Bestalde, ia gehiengoak “Ez ados” dagoela adierazi du, izan ere, %92,6ko portzentajea izan da erantzun hori eman dutenak. Azkenik, “Ez dakit” erantzuna %2,9ak soilik eman du. Laburbilduz, erantzunak erreparatuta, guraso gehienek argi daukate gelako irakasleak ikasle guztiei atentzio berbera eskaintzen diela.

Irakasleak, ikasleren batekin arazoren bat izanez gero, zuzeneko kontaktua izaten du ikaslearen gurasoekin arazoa konpontzeko asmoz.

Adierazle honen bidez, irakasleen eta gurasoen arteko harreman era komunikazioa zuzena eta estua dela esan dezakegu, izan ere, gurasoen %73,1k “Ados” dagoela adierazi baitu. “Ez ados” dauden portzentajea %1,5koa soilik izan da, eta “Ez dakit” erantzun dutenak %25,4a izan dira.

Eskolak ekintza ezberdinak egiten ditu, guraso ezberdinak parte hartu eta beraien harremanak sendotzeko (tailer ezberdinak, mendi txangoak, kirol ekintzak)

Kasu honetan ere gurasoen gehiengoak “Ados” dagoela adierazi du adierazle honekin, izan ere, erantzun hori eman dutenak %71,6 izan da. Bestalde, “Ez ados” erantzun dutenak %16,4 izan dira, eta “Ez dakit” erantzun dutenak %11,9a.

Zuzendaritzak egoki erantzuten ditu gurasoen arazo eta kezak.

“Ados” dagoela adierazi duten gurasoen portzentajea ez da oso altua izan, %55,2k eman du erantzun hori. “Ez ados” erantzuna eman dutenak gutxiengoak izan dira, %4,5 soilik. Azkenik, “Ez dakit” erantzuna eman dutenen ehunekoa nahiko altua izan dela ikus dezakegu, %40,3koa.


Nire seme-alaba erasotzen badute badakit arazoa konpontzeko laguntza jasoko dudala irakasle eta zuzendaritzaren eskutik.

Gurasoen gehiengoek irakasle eta zuzendaritzaren eskutik konfiantza jasotzen dutela adierazi dute, izan ere, gurasoen %77,9 izan da “Ados” erantzuna eman dutena. “Ez ados” erantzuna eman duten gurasorik ez da egon kasu honetan, eta “Ez dakit” erantzun duten gurasoak %22,1a izan da.

Irakasleak ikasle GUZTIEN arazoez arduratzen dira (famiaren egoera, zailtasun bereziak..)

Gurasoak diotenez, irakasleak ikasleen egoera ezberdinez interesatu eta arduratzen dira, hori adierazteko %79,4k “Ados” dagoela adierazle honekin erantzun du. Bestalde, “Ez ados” erantzun duen portzentajea %2,9koa izan da soilik, eta “Ez dakit” erantzun dutenak %17,6a izan dira.

5.irudia: Irakasleen atentzioa ikasleengan



Irakasleen ebaluazioa bilerak egiterakoan, ematen diguten seme-alabaren informazioa modu egokian azaldua eta antolatua izan ohi da.


Adierazle honen aurrean zalantza gutxi geratu dira. Izan ere, gurasoen %100ak adierazi du irakasleekin izan dituzten bileretan informazioa modu egokian eta antolatuan jaso dutela, eta horrek irakaslearen lana ona dela adierazten du.

Irakasleak nire seme-alaba pozik egoteaz arduratzen dira kurtsoan zehar izan dituen lorpenak kontutan izanda.

Azken adierazleetan ikusi dugun moduan, gurasoak beraien seme-alaben irakasleekin gustura daudela ikus dezakegu, izan ere, oraingo honetan ere gurasoen gehiengoak "Ados" dagoela adierazi du, hauek %94,1 izan da. "Ez ados" erantzuna eman duten portzentajea %1,5 soilik izan da eta "Ez dakit" erantzun dutenak %4,4a izan dira.

Irakasle taldeak zailtasunak dituzten ikasleen gaineko iritzi negatibo eta iraingarririk ez egotea lortzen du.

6.irudia: Irakasle taldeak iritzi negatiboak sahiesten ditu



- Ados
- Ez ados
- Ez dakit

"Ados" daudela erantzun duten gurasoak %52,9 izan dira. Bestetik, "Ez ados" erantzun duten gurasoen portzentajea %5,9a izan da. Azkenik, "Ez dakit" erantzun dutenak %41,2koa izan da.

Irakasle taldeak ikasleei etiketa positibo edo negatiboak jartzea ekidin du nahiz eta gelan


nota altuago edo baxuagoak egon.

Gurasoak ez daude ziur irakasleek etiketa positiboak ala negatiboak jartzen dituzten, izan ere, "Ados" erantzun dutenak %45,6 izan dira eta "Ez dakit" erantzun dutenak %51,5 izan dira. Azkenik, "Ez ados" erantzun dutenak gutxiengoak izan dira %2,9ko portzentajearekin.

Irakasleak nire seme-alabaren lorpenak bere ezaugarriak kontutan izanda baloratzen ditu, eta ez beste ikasle batzuekin konparaketak eginez

7.irudia: Ikasleen lorpenak konparaketak egin gabe baloratzen dira

Adierazle honen aurrean guraso gehiengoak "Ados" dagoela adierazi du %85,1eko portzentajearekin. "Ez ados" erantzun dutenak gutxiengoak izan dira, %3 soilik eta "Ez dakit" erantzun dutenak %11,9a izan dira.



Irakasleak ikasleak ebaluatzerako orduan ez ditu azterketetako notak bakarrik kontuan izaten, jarrera, pertsonalitatea, interesa eta bestelako balio batzuk ere kontuan izaten ditu.

Guraso gehiengoa “Ados” dagoela dirudi adierazle honen aurrean, izan ere, %79,4k eman baitu erantzun hori. “Ez ados” erantzun dutenak gutxiengoak izan dira %1,5eko ehunekoa izanda, eta “Ez dakit” erantzuna eman dutenak %19,1a izan dira.

Guraso eta familiek erantzundako galdetegietan erantzun ezberdinak agertzen dira, baina kasu gehienetan guraso asko bat datoz adierazle askorekin. Guraso askoren esanetan, nahiz eta ikastetxeak gurasoei eskolako ekintza batzuk egiteko aukera eman, gero ikastetxeak gurasoen proposamen eta kezka batzuk soluzio eta erantzun gabe uzten dituztela adierazi dute.

Bestalde, beraien seme-alabaren gaineko informazio zuzena daukatela aipatzen dute, izan ere, irakasleak ume guztien arazoaz eta ikaskuntza prozesuaz arduratzen dela eta hau guraso bileretan modu egoki eta planifikatu batean informazioa ematen zaiela diote. Gainera, irakasleek egiten duten ebaluazio sistemaren gaineko iritzi positiboa erakutsi dute, azterketaren notatik kanpo dauden faktore eta ikasle bakoitzaren ezaugarri ezberdinak ere kontuan hartzen dituztela esanez

GURASOEN ERANTZUNEN LABURPENA	
Erantzun positibo gehien izan dituzten galderak	<ul style="list-style-type: none"> -Nire seme/alaba gustura etortzen da eskolara. -Nire seme-alabak lagun onak ditu eskolan. -Familiei ikastetxean parte hartzeko aukerak ematen zaizkie (unean uneko jardueretan laguntza ematek, ikasgelako ekintza batzuetan laguntzeraino) -Irakasleen ebaluazioa bilerak egiterakoan, ematen diguten seme-alabaren informazioa modu egokian azaldua eta antolatua izan ohi da. -Irakasleak nire seme-alaba pozik egoteaz arduratzen dira kurtsoan zehar izan dituen lorpenak kontutan izanda. -Irakasleak ikasleak ebaluatzerako orduan ez ditu azterketetako notak bakarrik kontutan izaten, jarrera, pertsonalitatea, interesa eta bestelako balio batzuk ere kontutan izaten ditu. -Irakasleak nire seme-alabaren lorpenak bere ezaugarriak kontutan izanda baloratzen ditu, eta ez beste ikasle batzuekin konparaketak eginez
Erantzun negatibo gehien izan dituzten galderak	<ul style="list-style-type: none"> -Nire seme-alaba sarritan kexatzen da irakaslearen jarrera batzuez -Nire seme-alaba behin baino gehiagotan triste etorri da eskolatik irakasleak beste ikasleen besteko atentziorik jartzen ez diolako.

Erdizka erantzundako galderak	<ul style="list-style-type: none"> -Nire seme-alabari eskolak bere ikaskuntza prozesuan emaitza eta lorpen handienak lortzeko aukera eta baliabideak eskaintzen dizkio (artikuluak, liburua, teknologia baliabideak...) -Eskolan guztion iritzi eta ideiak kontutan hartzen dira erabakiak hartzerako orduan -Nire seme-alabak ulertzen ditu irakasleak agindutako lanak. -Irakasleak, ikasleren batekin arazoren bat izanez gero, zuzeneko kontaktua izaten du ikaslearen gurasoekin arazoa konpontzeko asmoz. -Eskolak ekintza ezberdinak egiten ditu, guraso ezberdinak parte hartu eta beraien harremanak sendotzeko (tailer ezberdinak, mendi txangoak, kirol ekintzak) -Zuzendaritzak egoki erantzuten ditu gurasoen arazo eta kezak. -Nire seme-alaba erasotzen badute badakit arazoa konpontzeko laguntza jasoko dudala irakasle eta zuzendaritzaren eskutik. -Irakasleak ikasle GUZTIEN arazoez arduratzen dira (familiaren egoera, zailtasun bereziak..) -Irakasle taldeak zailtasunak dituzten ikasleen gaineko iritzi negatibo eta iraingarririk ez egotea lortzen du -Irakasle taldeak ikasleei etiketa positibo edo negatiboak jartzea ekidin du nahiz eta gelan nota altuago edo baxuagoak egon.
--------------------------------------	---

4.3 IRAKASLEEN EMAITZAK




Irakasleen galdetegiari dagokienez prozesu berbera izan dute. Nahiz eta gurasoei proposatutako adierazle ezberdinak izan, irakasleek ere internet plataformaren bidez eman dituzte beraien erantzunak (eranskina 8.6). Prozesu honetan 35 izan dira irakasle eta zuzendaritzako kideen artean parte hartu dutenak. Galdetegi hau aurrera eramateko, hiru erantzun mota eman zituzten; “Ados” “Ez ados” eta “Ez dakit”

Ikasleek elkarri laguntzen diote inolako bereizkeriarik egon gabe.

8.irudia: Ikasleen artean laguntzen dira

Adierazle honen aurrean, ikasleen gehiengoak “Ados” dagoela adierazi du, izan ere, %71,4 izan da gehiengo hori. Bestalde “Ez ados” erantzuna eman duten irakasleak %28,6 osatzen dute. “Ez dakit” erantzuna ez du inork eman.



Ikasleen eta irakaslearen artean errespetua

lantzen da, bai ikasgelan eta baita eskolako beste esparru batzuetan ere.

Kasu honetan, irakasleen eta ikasleen arteko errespetua osotasunean lantzen dela ikus dezakegu, izan ere, irakasle guzti guztiek, hau da, %100ak “Ados” dagoela adierazi du adierazpen honen aurrean.

Ikasle guztiei buruzko itzaropen handiak daude.

Adierazle honen aurrean, irakasle gehiengoek bere ikasleen gaineko itxaropen handiak dituztela adierazi dute, hala nola, irakasleen %85,7k “Ados” erantzuna emanda. Bestalde, adierazle honekin “Ez ados” daudenen ehunekoa %14,3a izan da.

Irakasleek, eskola kontseiluko kideek, ikasleek eta familiek inklusioaren aldeko filosofia konpartitzen dute.

Erantzunak ikusita, eskola osatzen duten talde guztiek inklusioaren aldeko apustua egiten dutela ikus dezakegu. “Ados” daudela erantzun duten irakasleen portzentajea %100ekoa izan da.

Irakasleek uste dute ikasle guztiek garrantzia bera dutela.

Irakasleen perspektiba kontutan izanda, ikasle guztiei garrantzi berbera ematen dietela adierazi dute denek. Ez da egon “Ez ados” eta “Ez dakit” erantzunik, hori dela eta, irakasle guztiek “Ados” daudela adierazi dute adierazle honekin.

Irakasleak ikastetxean dauden ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak ezabatzen saiatzen dira.

Irakasleen %100ak erantzun du “Ados” daudela. Beraz, pentsa dezakegu irakasleek estrategia eta metodologia ezberdinak erabiltzen dituztela eskolan eta gela barruan agertzen diren oztopoak ezabatzeko.

Ikastetxea bereizkeria-praktikak gutxitzen ahalegintzen da.

Adierazle honek inklusioaren ezaugarrietako bati erreferentzia egiten dio, bereizkeriak albo batera uzteari eta ikasle guztiak gelan berdinak izan eta gustura sentitzeari. Hori kontutan izanda, badirudi irakasleek eskolan eta geletan hori lantzeari garrantzia ematen diotela, izan ere, adierazle honetan egon diren erantzunen %100a “Ados” daudela izan da.

Ikastetxea herriko eta kanpoko ikasle guztiak onartzen saiatzen da.

Adierazle honek dibertsitateari ere erreferentzia egiten dio. Emaitzak ikusita, konturatu ahal gara irakasleek “Ados” daudela esan dutela, eta horren portzentajea %100ekoa izan dela.

Aniztasuna zaintzeko eta antolatzeko laguntza-era guztiak koordinatzen dira.

Irakasleek inklusioa lantzeko laguntza era denak koordinatzen direla adierazi dute, irakasleen %100ak “Ados” dagoela adierazita.

Kidekoen arteko botere-gehiegikeriazko harremanak edo “bullying” delakoa murriztu edo desagertzeko esku hartzen du eskolak.

Eskolan eta gela barruan bereizkeriarik eta botere maila ezberdinik ez egoteko irakasleek eta eskolak esku hartzen dutela adierazi dute, izan ere, “Ados” daudela adierazi duten irakasleen portzentajea %100ekoa izan da.

Ebaluazio metodologiak ikasle guztien lorpenak motibatzen ditu.

Irakasleen gehiengoak “Ados” dagoela adierazi du, izan ere, %85,7k eman du adierazpen hori. Bestalde, irakasleen %14,3ak “Ez ados” dagoela adierazi du.

Irakasleek lankidetzagiroan planteatu, berrikusi eta irakasten dute.

Irakasleek gelan ikaskuntza prozesuan zehar giro ona ezartzen dutela adierazi dute, izan ere, adierazle honen aurrean “Ados” daudela esan duten ehunekoa %100ekoa izan da.

Irakasleen artean harreman egokia dago, hori dela eta, programazioak eta egin beharreko ekintzak antolatzea errazagoa da.

Irakasleek beraien arteko harremana oso ona dela adierazi dute. “Ados” daudela adierazle honekin erantzun dutenak %100a izan da.

Irakasleen eta zuzendaritzaren artean koordinazio egokia dago.

Eskola baten antolamendua aurrera eramateko ezinbestekoa da zuzendaritza taldearen eta irakasle taldearen arteko erlazio zuzena eta koordinatua izatea. Irakasleek eskola honetan horrela dela adierazi dute, izan ere, “Ados” daudela erantzun duten irakasleak %100a izan dira.

Irakasleen aniztasuna irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako baliabidetzat erabiltzen da.

Adierazle honetan irakasle denak ez datoz bat erantzunetan. “Ados” daudela erantzun duten irakasleak %85,7 izan dira. Bestalde, “Ez ados” erantzun duten irakasleak %14,3a izan dira.

Irakasleak berdin tratatzen ditu ikasle guztiak, urritasunen bat duten ikasleak eta aldi motz baterako dagoen ikaslea barne.

Irakasleen %100ak erantzun du “Ados” daudela eta beraiek ikasle guztiak berdin tratatzen dituztela ezaugarri batzuk edo beste batzuk izan.

Irakasleak eta zuzendaritza taldeak kontuan izaten dituzte kontzeptu negatibo batzuk erabiltzerako orduan, hala nola, ekidin egiten dituzte “ikasle normalak” edo “behar bereziak dituen ikaslea” bezalako etiketak jartzea.

Irakasle gehienak ados daude adierazle honen aurrean, izan ere, %85,7k kontuan izaten dutela kontzeptu negatiborik ez erabiltzerako orduan adierazi du eta. Bestalde, “Ez ados” erantzun dutenak %14,3 izan dira.

Irakasleen arteko talde-lana lankidetzaren ereduak da ikasleentzat.

Adierazle honen aurrean irakasleen %71,4k “Ados” daudela erantzun du. Bestalde, “Ez ados” daudenen portzentajea %14,3koa izan da eta “Ez dakit” erantzun dutenen ehunekoa ere %14,3koa da.

Ikasleei iritzi ezberdinak eskatzen zaizkie gelako metodologia eta ikaskuntza prozesua hobetzeko asmoz.

Irakasleen %85,7k “Ados” daudela adierazi du. Bestalde, ezezkoa eman duten irakasleen ehunekoa %14,3a izan da.

Ikasleren batek arazoren bat izanez gero, irakasleek komunikazio zuzena izan ohi dute ikaslearen gurasoekin eta zuzendaritzarekin arazoari konponbide bat aurkitzeko asmoz.


Irakasleek arazoren baten aurrean gurasoekin komunikazio zuzena dutela adierazi dute. Adierazpen hori %100koa izan da irakasleen aldetik.

Irakasleen lorpenak bakoitzaren ahalmen eta ezaugarriak kontutan izanda baloratzen dira, eta ez beste ikasle batzuekin konparaketak eginez.

Irakasleen %100ak erantzun du adierazle honen aurrean “Ados” daudela.

Aukera eta atentzio berdina ematen zaie ikasle guztiei, nota altuagoak ala baxuagoak izan.

9.irudia: Ikasle guztiei atentzio berdina ematen zaie



Irakasle guztiek beraien ikasleen nahiz eta nota ezberdinak izan atentzio berdina ematen dietela adierazi dute, izan ere, emaitzetan “Ados” daudela adierazi dute irakasleen %100a.

Laguntza eta garrantzia bera ematen zaie mutilen eta nesken lorpenei.

Irakasleen %100ak erantzun du “Ados” dagoela eta neska zein mutilen lorpenei garrantzia bera ematen dietela.

Irakasleak gelan eta lan kooperatiboa lantzeari garrantzia ematen dio.

Inklusioa lantzeko beste ezaugarrietako bat ikasgelako dibertsitatea aprobetxatuz lan kooperatiboa lantzea da. Irakasleen emaitzak erreparatuz, beraien geletan ere kooperazioa lantzeari garrantzia ematen zaiola dirudi. Izan ere, adierazle honen aurrean “Ados” daudela erantzun duten irakasleen portzentajea %100ekoa izan da.

Irakaslearen ebaluatzeko metodoak gelako ezaugarrietara moldatu eta aldaketa izaten ditu, betiere oinarri moduan curriculumaz izanda.

Irakasleen %100ak “Ados” daudela erantzun du, eta ebaluazio metodo ezberdinak erabili eta modu ezberdinak bilatzen dituztela beraien ikasleen ezaugarriak kontutan izanda.

Ebaluazioek ikasleek beraien ikaskuntza prozesuaren gaineko autokritika egin eta hobetzeko zer duten konturatzeko baliagarriak dira.

Irakasleen %71,4k adierazle honekin “Ados” dagoela erantzun du. Bestalde, “Ez ados” erantzuna %14,3k eman du eta “Ez dakit” erantzuna beste %14,3ak.

Irakasleen galdetegien erantzunak erreparatu ostean, ikus daiteke irakasleek eta zuzendaritza taldeak inklusio lantzearen aldeko apustua egiten dutela. Irakasleek, beraien geletan ikasle guztiak berdintasunean, lankidetzan giroan eta errespetuzko tratu batean lan egiten dutela esaten dute eta zailtasunak dituzten ikasleen gaineko iritzi negatiboak eta bereizketa praktikak deuseztatzen ahalegintzen direla.

Bestalde, irakasle eta zuzendaritza taldearen artean harreman hurbila eta estua dagoela aipatzen dute eta hau funtzeskoa dela ikastetxean inklusioa modu egoki batean planifikatu eta lantzeko. Hala nola, irakasleen koordinazio egoki baten bidez, bullying kasurik ez sortzeko eta hau egonez gero ahalik eta bizkorren identifikatu eta deuseztatzeko.

Azkenik, nahiz eta alde positibo ugari ikusi ditugun emaitzetan ebaluazioaren gainean iritzi ezberdinak sortu dira eta garrantzitsutzat jo genuen izandako bileran. Izan ere, ebaluazio sistemak ez zituela ikasle guztien lorpenak motibatzen esan zuten irakasle

batzuek. Hau ikusita, ebaluazioren gainean moldaketa batzuk egitea ezinbestekoa dela aipatu genuen, izan ere, inklusioa lantzeko ikasle guztientzako positiboa den ebaluazioa bat bilatu behar bait.

IRAKASLEEN ERANTZUNEN LABURPENA	
Erantzun positibo gehien izan dituzten galderak	<ul style="list-style-type: none"> -Ikastetxea herriko eta kanpoko ikasle guztiak onartzen saiatzen da. -Ikasleak eta irakaslearen artean errespetua lantzen da, bai ikasgela eta baita eskolako beste esparru batzuetan ere. -Ikasle guztiei buruzko itxaropen handiak daude. -Irakasleek, eskola kontseiluko kideek, ikasleek eta familiek inklusioaren aldeko filosofia konpartitzen dute. -Irakasleek uste dute ikasle guztiak garrantzia bera dutela. -Irakasleak ikastetxean dauden ikaskuntzarako eta partaidetzarako trabak ezabatzen saiatzen dira. -Ikastetxea bereizkeria-praktikak gutxitzen ahalegintzen da. -Aniztasuna zaintzeko eta antolatzeko laguntza-era guztiak koordinatzen dira. -Kidekoen arteko botere-gehiegikeriazko harremanak edo "bullying" delakoa murriztu edo desagertzeko esku hartzen du eskolak. -Irakasleek lankidetzaren giroan planteatu, berrikusi eta irakasten dute -Irakaslearen artean harreman egokia dago, hori dela eta, programaziok eta egin beharreko ekintzak antolatzea errazagoa da. -Irakasleak eta zuzendaritzaren artean koordinazio egokia dago. -Ikaslearen aniztasuna irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako baliabidez erabiltzen da. -Irakasleak berdintzat hartzen ditu ikasle guztiak, urritasunen bat duten ikasleak eta aldi motz baterako dagoen ikaslea barne. -Ikaslearen batek arazoren bat izanez gero, irakasleek komunikazio zuzena izan ohi dute ikaslearen gurasoekin eta zuzendaritzarekin arazoari konponbide bat aurkitzeko asmoz. -Ikaslearen lorpenak bakoitzaren ahalmen eta ezaugarriak kontutan izanda baloratzen dira, eta ez beste ikasle batzuekin konparaketak eginez. -Aukera eta atentzio berdina ematen zaie ikasle guztiei, nota altuagoak ala baxuagoak izan -Laguntza eta garrantzia bera ematen zaie mutilen eta nesken lorpenei. -Irakasleak gelan eta lan kooperatiboa lantzeari garrantzia ematen dio.
Erantzun negatibo gehien izan dituzten galderak	
Erdizka erantzundako galderak	<ul style="list-style-type: none"> -Ikasleek elkarri laguntzen diote inolako bereizkeriarik egon gabe. -Ebaluazio metodologiak ikasle guztien lorpenak motibatzen ditu. -Irakasleak eta zuzendaritza taldeak kontutan izaten dituzte kontzeptu negatibo batzuk erabiltzerako orduan, hala nola, ekidin egiten dituzte "ikasle normalak" edo "behar bereziak dituen ikaslea" bezalako etiketak jartzea. -Irakaslearen arteko talde-lana lankidetzaren eredu da ikasleentzat. -Ikasleei iritzi ezberdinak eskatzen zaizkie gelako metodologia eta ikaskuntza prozesua hobetzeko asmoz. -Irakaslearen ebaluatze metodoak gelako ezaugarrietara moldatu eta aldaketa izaten ditu, betiere oinarri moduan curriculum izanda. -Ebaluazioek ikasleek beraien ikaskuntza prozesuaren gaineko autokritika egin eta hobetzeko zer duten konturatzeko baliagarriak dira.

Laburbilduz, behin guraso, ikasle eta irakaslearen emaitzak erreparatu ostean konklusio batzuk atera genituen denen artean. Ikastetxeak nahiz eta inklusioaren aldeko apustua egin eta atal asko modu egokian landu, inklusioa osotasunean lantzeko ibilbide luzea

